

# IMMIGRAZIOAREN ERAGIN SOZIOEKONOMIKOA EAEn

Arkaitz Fullaondo  
Maite Fouassier  
María José Martín  
Iraide Fernández



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
Familia Politikaren eta Komunitate  
Garapenerako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
Dirección de Política Familiar  
y Desarrollo Comunitario



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea





# IMMIGRAZIOAREN ERAGIN SOZIOEKONOMIKOA EAEn

Arkaitz Fullaondo  
Maite Fouassier  
María José Martín  
Iraide Fernández



**ikuspegi**

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración

*CIP. Unibertsitateko Biblioteka*

**Immigrazioaren** eragin sozioekonomikoa EAEn [Recurso electrónico] / Arkaitz Fullaondo ... [et al.]. – Datos. – [Bilbao] : Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia = Observatorio Vasco de Inmigración, 2016. – 1 recurso en línea : PDF.  
En la cub.: Eusko Jaurlaritz, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila = Gobierno Vasco, Departamento de Empleo y Políticas Sociales ; Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Modo de acceso: World Wide Web.  
ISBN: 978-84-9082-367-5.

1. Inmigrantes - País Vasco - Siglo XXI. 2. País Vasco - Emigración e inmigración - Siglo XXI. I. Fullaondo, Arkaitz, coaut. II. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración, ed.

314.7 (460.15)

325.1 (460.15)

*Argitaraldi elektronikoa*

Argitaraldia: 2016ko otsaila

Argitaratzailea: Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Diseinua: Taide Arteta, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Dokumentazioa: Antonio Gómez, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

ISBN: 978-84-9082-367-5

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

# Aurkibidea

Laburpen exekutiboa	5
1. Sarrera	7
2. Helburuak	9
3. Metodologia eta datuak	11
4. Aurrekariak	17
5. EAEko diru-kutxa publikoen gaineko eragin ekonomikoa	23
1. Emaidza nagusiak: balantzea	23
2. Krisialdiko bilakaera	25
3. Gastuaren egitura	27
4. Gizarte-inbertsioaren analisia, partida zehatzetan banatuta	29
5. Zergen eta gizarte-kotizazioen bidezko diru-sarreraren analisia	36
6. Eragin demografikoa EAEn	45
1. Biztanleriaren bilakaera	45
2. Jaiotza-tasa eta jaiotza-tasa gordina	47
3. Biztanleriaren bilakaera naturala	49
4. Zahartze-indizea eta mendekotasun orokorraren tasa	51
5. Biztanleria, adin-taldeen arabera	52
6. Migrazio-saldoa	53
7. Laburpena eta ondorioak	55
Bibliografia	59
Eranskina I - Metodologia	61
Eranskina II - Taulak	69



# Laburpen exekutiboa

Txosten honetan, zehatz-mehatz aztertu da atzerriko biztanleek nola eragiten dieten Herri Administrazioaren diru-kutxei. Horretarako, kolektibo horrek zenbateko gastuak eta diru-sarrerak dituen zenbatetsi da. Halaber, talde horrek euskal gizartean duen eragina ere aztertu da. Hona hemen ikerketa honen ondorio nagusiak:

- EAEn, atzerriko nazionalitateko kolektiboaren ekarpen ekonomikoaren saldoa positiboa da, bai garai oparoetan (2008), bai krisialdian (2012-).
- Lehen, 443 milioiko diru-sarrerak zeuden, eta orain, berriz, 631 milioikoak, batez ere Gizarte Segurantzarako kotizazioen eta PFEZren gorakada dela eta; horrek erakusten du kolektibo horretako kide askok dihardutela Euskadiko lan-merkatuan.
- Nolanahi ere, krisiaren eragina nabarmena da, eta saldoak 71 milioi eurotik (2008an) 38 milioi eurora (2012an) egin du behera: 23 milioi gutxiago.
- Krisi ekonomikoak atzerriko nazionalitateko kolektiboarengan duen inpaktua argi islatzen da diru-laguntzen eta gizarte-zerbitzuen kontzeptuan jasotzen duten zenbatekoaren gorakadan. Horrek esan nahi du EAEn krisiaren eragin handiena izan duten kolektiboetako bat eta egoera ahulenean daudenetako bat dela, azterketa eta estatistika ofizial guztiek berresten dutenez.
- Beste alde batetik, datuek adierazten dute gure gizartean zabalduko hipotesia, hots, atzerriko nazionalitatea duen kolektiboak babes sozialeko sistemaren bidez jasotzen duena baino ekarpen txikiagoa egiten duela, ez dela oinarritzen eskuragarri dauden datu estatistikoetan eta, logikoki, ekarpen handiagoa egingo dutela ziklo-aldaketa gertatzen denean.
- Horri dagokionez, ez dirudi atzerritarrentzat *per capita* gastu handixeagoa dagoenik espainiarrentzat baino. Gastu hori 3.170 eurokoa zen atzerritar bakoitzeko eta 3.653koa biztanleria osoarentzat. 2012an, berriz, gastua 3.906 eurokoa zen atzerritar bakoitzeko eta 3.947 eurokoak biztanleria osoarentzat. Alegia, 2012an gastua handiagoa zen espainiar batentzat atzerritar batentzat baino. Horren arrazoi nagusia da gastu nabarmena egiten dela atzerritarrek pisu oso urria duten partida jakin batzuetan; besteak beste, osasunean, mendekotasunerako laguntzetan eta goi-mailako hezkuntzan.
- Ondorio hauekin amaitzeko, nabarmentzekoa da, halaber, atzerritarrek euskal demografiaren gainean duten inpaktu sozial argia, azken urteotan herritar kopurua ez baita jaitsi. Era berean, argi dago atzerritarrek heldu izanak hobetu egin dituela zenbait adierazle; kasurako, jaiotza-tasa, mendekotasun-tasa eta zahartze-tasa. Alde horretatik, ezin dugu ahaztu adierazle horiek ongizate-estatuan epe ertainera eta luzera izango dituzten eragin ekonomiko eta sozial guztiak.





# 1

## Sarrera

Mundu osoan azken urteotan izan diren migrazio-fluxu gehien-gehienak enpleguaren edo arrazoi ekonomikoen ondorioz gertatu dira nagusiki. Eta, jakina, Euskal Herrian ere igarri da giza mugimenduaren egungo joera hori.

Hori kontuan hartuta, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik, nazioarteko ikerketak egiten ari dira, immigrazioak ekonomian duen eragina kuantifikatzeko eta neurtzeko eta ongizate-estatuari eusteko egiten duen ekarpena neurtzeko. Espainiako estatuan bertan, arlo horretako zenbait azterlan egin dira, hala oparoaldi ekonomikorako (Sebastián, 2006; Madrilgo Erkidegoa, 2006; Arriola, Gómez, Andrés, 2008; Jaén eta Piedra, 2009) nola krisialdi ekonomiko eta sozialerako (De Arce, 2010; Godenau, 2012).

Bestela izan ezin daitekeenez (eta halaxe erakusten du literatura espezializatuak), ikerketaren esparru horretan ezin da bazter utzi krisiaren eragina, asko murriztu baititu baliabide ekonomikoak eta sozialak, hala biztanleenak, nola erakunde publikoenak. Baliabideen urritasun horrek eta herritar gehien bizi-kalitateak txarrera egin izanak eragin zuzena du gure gizarteak atzerriko herritarren inguruan duen pentsamoldean; izan ere, uste da atzerriko herritarrek ez dituztela behar bezala erabiltzen babes sozialaren eta ongizatearen sistema publikoko baliabide sozialak.

Alde horretatik, immigrazioarekiko joerei buruzko zenbait azterlanen arabera, gero eta jende gehiagok uste du atzerriko herritar immigranteek *ematen dutena baino gehiago jasotzen dutela*. Horixe frogatzen dute, Euskal Herriaren kasuan, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egindako immigrazioarekiko joerei buruzko Barometroaren edizioek (Ikuspegi, 2014).

Txosten honetan, 2014an eta 2015ean eginiko ikerketaren emaitzak jaso ditugu, Eusko Jaurlaritzak 2006ko datuekin egin zuen aurreko azterlana (Arriola, Gómez, Andrés, 2008) eguneratzeko eta osatzeko asmoz. Izan ere, aurreko txosten hura Euskal Herria eta estatu osoa oparoaldi ekonomikoan zegoela idatzi zen. Txosten berria egiteko, oso kontuan hartu da krisiak immigranteentzako gizarte-politiken ekarpenean eta gastuan izan duen eragina. Bestalde, datu fidagarrien eta egiaztatuen bidez, erantzuna eman nahi diegu alderdi honetan dauden estereotipoei, errealitatearekin bat datozen jakiteko.

## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

Azkenik, azpimarratu nahi dugu txosten honetan aurkezten ditugun datuak diru-kutxa publikoei eginiko ekarpenei baino ez dagozkiela -administrazio autonomikoa eta Gizarte Segurantzarako kotizazioak-, baina ez garela ari aztertzen immigrazioak ekonomia osoan eta, besteak beste, enpleguan, garapen ekonomikoan eta ezkutuko ekonomian duen eragina, oso zaila baita hori neurtzea eta balioestea. Beste modu batera esanda, etorkinen inpaktu ekonomikoaren icebergaz baino ez gara ari hitz egiten; horrela, kautelazko ikuspegia hartzen dugu kolektibo horrek euskal ekonomian dituen eraginaren inguruan.

# 2 | Helburuak

Azterlan honen helburu nagusia da atzerriko immigrazioak EAEn krisiaren aurretik eta ostean zenbaterainoko inpaktu sozioekonomikoa duen neurtzea. Helburu nagusi horren atzean beste helburu espezifiko batzuk daude, haren osagarri. Hona hemen helburu espezifikoak:

- Balantzea egitea atzerriko herritarrek EAeko herri-administrazioarengandik jasotzen duten diru kopuruaren eta herri-administrazioari ematen dioten diru kopuruaren artean.
- Krisiaren eragina eta jasotzen eta ematen dutenaren balantzearen bilakaera luzera edo iraupenaren arabera zehaztea (krisiaren aurretik eta ondoren).
- Atzerriko herritarrek ongizate-sistema nola erabiltzen duten aztertzea eta diru-kutxa publikoetarako kostua ebaluatzea.
- Biztanle atzerritarrek zerga zuzen zein zeharkakoen bitartez diru-kutxa publikoei egiten dieten ekarpena aztertzea eta xehetasunez azaltzea.
- Atzerriko herritarren inpaktu demografikoa eta horren eragin sozialak eta ekonomikoak aztertzea.



# 3

## Metodologia eta datuak

### Metodologia

Azterlan honek metodologia kuantitatiboa du oinarrian, eta zenbait datu-basetan oinarrituta osatu diren adierazle batzuk erabili dira bertan. Ohartarazi behar da honelako azterlan bat egitea oso zaila dela, datu eta material mordoa eta informazio-iturri ugari erabili behar direlako batez ere.

Zehazki, txosten honetako datuek oinarri dituzte EAEn Espainiako eta atzerriko nazionalitatea dute herritarren gutxi gorabeherako *diru-sarrerak* eta *gastuak*. Diru-sarreratzat jotzen da administrazio publikoari zergen eta gizarte-kotizazioen bidez egiten zaion ekarpen ekonomikoa. Bestalde, gastutzat jotzen da EAeko ongizate-sistemaren hainbat zerbitzu erabiltzeak dakarren zenbatespen ekonomikoa. Gastuari dagokionez, partida honetan ez dira sartu pentsioei dagozkien zifrak. Izan ere, atzerriko eta Espainiako nazionalitatea duten herritarren adin egitura oso desberdina denez, pentsioak hemen sartzeak alborapen izugarria ekarriko luke: pentsioak, kuantitatiboki, gastu oso handia dira, eta ia-ia Espainiako nazionalitatea duten herritarrei soilik dagozkie.

Bestalde, analisisian ezin izan dira sartu ez ongizate-sistemaren zerbitzu guztiak, ez zerga guztiak; informazio fidagarria, kalitatekoa eta osoa ematen duten aldagaiak baino ez dira baliatu. Badakigu erabaki metodologiko honek kanpoan utz ditzakeela analisirako garrantzitsuak diren elementu batzuk, baina lehentasun handiagoa eman zaio informazioaren kalitateari, kantitateari baino. Azterlana egiteko, 2008ko eta 2012ko datuen analisisia baliatu da, eta, urte horien alderaketarekin, krisiaren eragina ebaluatu ahal izan dugu.

Diru-sarrerei dagokienez, kontserbatzailatzat jo dezakegun estrategia bat erabili da ikerketa egiteko. Errentaren mailak eta soldata-masa kalkulatzeko, berriz, Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten atzerriko biztanleak bakarrik hartu dira kontuan; hortaz, ez dira aintzat hartu ezkutuko ekonomian lan egiten duten pertsona guztiak. Soldatak neurtzeko, denboraren eta errenta mailaren aldagaiak erabili dira.

Era berean, nabarmentzekoa da azterlanak diru-kutxa publikoen gaineko eragina duela ardatz, eta ez euskal ekonomia osoaren gaineko eragina. Izan ere, euskal ekonomia osoaren gaineko

eragina aztertzeko (nahiz eta azterlan xeheagoa izango litzatekeen), datu asko eta asko lortu beharko lirateke, eta, gainera, izugarri zailduko luke ikerketa. Hori dela eta, soilik diru-kutxa publikoetan oinarritzea erabaki genuen.

## Datuak, informazio-iturriak eta balioespen-metodologia

Jarraian azalduko ditugu, alde batetik, zenbatekoak gutxi gorabehera kalkulatzeko erabili den metodologia eta, bestetik, analisiaren alderdi bakoitzerako erabilitako informazio-iturriak<sup>1</sup>.

### Gastua

#### *Diru-laguntzak eta gizarte-zerbitzuak*

Atzerriko nazionalitatea duten herritarrei diru-laguntzak eta gizarte-zerbitzuak erabiltzeagatik egotz dakiekeen gastua balioztatzeko, hauen arteko batura egin da: diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) eta beste gizarte-laguntza batzuen gastuaren balioespena, eta adinekoentzako eta mendeko pertsonentzako gizarte-zerbitzuen gastuaren balioespena.

DSBEren eta beste gizarte-laguntza batzuen gastua kalkulatzeko, Eusko Jaurlaritzak 2008 eta 2012rako egindako Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren estatistikak erabili dira. Hala, inkestako datuak ustiatuz, DSBEek eta beste gizarte-laguntza batzuek ekarritako diru-sarrerak balioetsi dira (Gizarte Segurantzak langabeziagatik ematen dituen laguntzak barne, baina atzerriko nazionalitatea dutenen pentsioengatiko diru-sarrerak kontuan hartu gabe).

Bestalde, adinekoentzako eta mendeko pertsonentzako gizarte-zerbitzuen gastua kalkulatzeko, atzerriko kolektiboari egotz dakiokeen gastuaren zatidura aplikatu zaio gastu errealaren aurrekontuari. Kasu honetan, 2010. urterako soilik egin ahal izan da kalkulua, urte horretarako zatidura kalkulatzeko datuak baino ez daudelako. Ildo horretatik, analisia egiteko, foru-aldundien aurrekontua eta Eusko Jaurlaritzak 2010ean eginiko Gizarte Premiei buruzko Inkesta hartu dira abiapuntutzat. Adinekoentzako eta mendeko pertsonentzako zerbitzuen aurrekontuaren barruan sartu dira adinekoen laguntzari, egoitzei, eguneko zentroei, harrera-familiei eta abarri buruzko politikak ezartzeko partidak.

#### *Hezkuntza*

Atzerriko nazionalitatea duten herritarrek hezkuntza-sistema erabiltzeagatik sortzen duten gastua balioesteko, oinarri hartu da ikastetxearen titulartasunaren arabera bereizitako hezkuntza maila bakoitzean matrikulatuta dagoen ikasle bakoitzaren araberrako gastu-ratioa. Informazio-iturri hauek erabili dira: Eusko Jaurlaritzak hezkuntza maila eta ikastetxe-titulartasun bakoitzerako 2008an eta 2012an emandako aurrekontuak, batetik, eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ikasleen nazionalitatearen arabera argitaratutako matrikulazioak, bestetik.

---

<sup>1</sup>Formulak eta metodologiaren azalpen xeheagoa ikusteko, jo eranskinera.

**Osasun-arloa**

Atzerriko herritarrek osasun-arloan zenbaterainoko gastua sortu duten kalkulatzeko, adin-taldean arabera osasun-gastuaren zatidura ezarri da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak argitaratu zuen EAEko osasun-gastuaren balioespena erabili da, adin-taldean arabera<sup>2</sup>.

Informazio-iturri hauek erabili dira: alde batetik, herritarrek adin-taldearen eta nazionalitatearen arabera Estatistikako Institutu Nazionalaren Udal Erroldan duten banaketa; eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak osasun-arlorako duen aurrekontua. Kasu bietan, 2008. eta 2012. urteko datuak erabili dira analisirako.

**Etxebizitza**

Etxebizitzaren gastua balioztatzeko, arlo honetarako aurrekontua biderkatu egin da atzerriko herritarrei etxebizitza babestuagatik egotz dakiekeen zatidurarekin, Etxebidek emandako esleipendunen erregistroa oinarri hartuta. Analisia egiteko, Eusko Jaurlaritzak Alokabideren bidez sustatzen duen etxebizitza babestuak hartu dira kontuan alokairuetarako, eta VISESaren bidez sustaturiko etxebizitza babestuak jabetzetarako; bestalde, inbertsio orokorrak hartu dira kontuan Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren kasuan.

Azkenik, Alokabideren, Visasaren eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren 2008ko eta 2012ko aurrekontu errealak hartu dira aintzat.

**Diru-sarrerak****PFEZa**

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergak (PFEZ) zenbateko diru-sarrerak eragin dituen kalkulatzeko, eginiko ekarpenagatik egotz daitekeen zatiduraren errenta mailaren arabera benetan bildu den diruaren zenbatekoa biderkatu egin da atzerriko herritarren kopuruarekin.

Kasu honetan, oinarri hartu dira Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak 2008ko eta 2012ko diru-bilketari buruz emandako datuak eta Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI). Errenta mailaren arabera diru-bilketari buruzko datuak aztertuta, bereizi egin dezakegu herritarrek soldaten arabera egiten duten zerga-ekarpena. Alde horretatik, PGDIk herritarrei galdetzen die zenbateko soldatak dituzten eta ea Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten. Horrela, PGDIri erreparatuta, Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten eta beren edo besteren kontura lan-kontratua duten herritarren soldata-masa taldeka dezakegu, PFEZaren bilketa-tarteek oinarrian duten errenta mailaren arabera. Horrez gain, PGDIri esker, herritarren nazionalitatearen arabera bereiz dezakegu analisi hau.

<sup>2</sup>Osasun Sailaren ildo estrategikoak 2013-2016” agirian argitaratu da adin-taldean arabera osasun-gastua: [http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkpubl01/eu/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/adjuntos/lineas\\_estrategicas\\_%20euskera.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkpubl01/eu/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/lineas_estrategicas_%20euskera.pdf)

### **BEZa**

Atzerriko herritarrek balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) dela-eta eragiten dituzten diru-sarrerak balioesteko, kolektibo horrek urte osoan zenbat kontsumitu duen eta kontsumo horri zer motatako BEZa ezarri zaion aztertu da.

Hala, zenbatekoa kalkulatzeko, etxeko kontsumoari buruz galdetzen duen PGDIa hartu da kontuan; zehazki, egiten diren kontsumo motei buruz galdetzen duena. Aldagai asko daudenez, zehatz-mehatz balioets daitezke herritarren kontsumo motak eta BEZaren bidez eragiten dituzten diru-sarrerak.

### **Zerga bereziak**

BEZak bezala, zerga bereziek ere herritarren kontsumoa zergapetzen dute; kasu honetan, alkoholaren, tabakoaren, argindarraren eta hidrokarburoen kontsumoa, zehazki. Atzerriko nazionalitatea duten herritarren ekarpena zenbatesteko, kontzeptuetako bakoitzagatik bildutako zenbateko osoa biderkatu egin da hiru zatidura zuzentzaileekin: pisu demografikoarekin, errenta mailarekin eta kontsumo-egiturekin, hain zuzen ere.

Kasu honetan, zenbatespena egiteko, oinarri hartu dira Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak zerga bakoitzaren bilketa absolutuari buruz emandako datuak, batetik, eta Familia Aurrekontuen Inkesta, bestetik (inkesta horren bidez, herritarrek kontzeptu horiek direla-eta zenbat kontsumitzen duten jakin daiteke). Demografiaren, errentaren eta kontsumoaren zatidura ezarrita, aldaketak sartzen dira aldagai horien arabera kontsumo mailetan; hori dela eta, faktore zuzentzaileak dira.

Zatidura demografikoa kalkulatzeko, hainbat irizpide erabili dira, kontsumoaren kontzeptuaren arabera. Horrela, argindarraren eta hidrokarburoen kontsumoari dagokionez, herritar guztiguztiek erabiltzen dituztela kontuan harturik, hau da zatidura: atzerriko nazionalitatea duten herritar guztiak zati herritar guztiak. Alkoholari dagokionez, 15 urtetik gorako herritarrek eta gehienbat musulmanak bizi diren herrialdeetakoak ez direnak hartu dira kontuan; kolektibo hori 15 urtetik gorako herritar guztien artean zatitu da. Bestalde, tabakoaren zatidura demografikoa kalkulatzeko, 15 urtetik gorako atzerriko herritarren kopurua 15 urtetik gorako herritarren kopuru osoaren artean zatitu da.

Errenta mailaren kasuan, herritarrek errentaren arabera egiten duten kontsumo mailan oinarrituta dago zatidura horretan ezarri den faktore zuzentzailea. Hala, zatidura kalkulatzeko, atzerriko nazionalitatea duen familia-unitatearen batez besteko diru-sarrerak alderatu egin dira Espainiako nazionalitatea duen familia-unitatearen batez besteko diru-sarrerekin.

Azkenik, kontsumoaren zatidura egiteko, herritarrek nazionalitatearen arabera egiten duten kontsumo motaren arabera ezarri da faktore zuzentzailea. Hori kalkulatzeko, Familia Aurrekontuen Inkesta hartu da oinarri, eta etxe bakoitzak kontzeptu bakoitzagatik duen batez besteko gastu osoa alderatu egin da atzerriko herritarren etxe bakoitzak kontzeptu bakoitzagatik duen batez besteko gastuarekin.



### **Gizarte-kotizazioak**

Atzerriko herritarrek gizarte-kotizazioen bidez egiten duten diru-ekarpena kalkulatzeko, atzerriko herritarrei egotz dakiekeen zatidura biderkatu egin da 2008ko eta 2012ko diru-bilketa errealarekin.

Kasu honetan, EUSTATen bilketa-datuak baliatu dira kalkuluak egiteko, eta PGDIren datuak egotz daitekeen zatidura kalkulatzeko. Kontuan harturik Gizarte Segurantzari egiten zaion ekarpena aldatu egiten dela kotizatzen duen pertsonaren soldata mailaren arabera, PGDIren bidez jakin dezakegu EAEko soldata-masaren zer zati dagokien atzerriko herritarrei. Bi tarte hartu dira kontuan: alde batetik, hilean 900 euro gordin baino gutxiago kobratu eta gizarte-kotizazioetan % 15eko ekarpena egiten duten pertsonak, eta, bestetik, hilean 900 euro gordin baino gehiago kobratu eta gizarte-kotizazioetan % 21eko ekarpena egiten duten pertsonak. Alde horretatik, egozpen-zatidura kalkulatzeko, atzerriko herritarrek soldata-masa osoaren barruan duten pisua kalkulatu da, Gizarte Segurantzari soldataren arabera egiten dioten ekarpenari erreparatuta.

### **Etxebizitza**

Etxebizitzagatiko diru-sarrerak balioztatzeko, arlo honetako diru-sarrerak biderkatu egin dira atzerriko herritarrei etxebizitza babestuagatik egotz dakiekeen zatidurarekin. Zatidura hori Etxebideren laguntza jasotzen duten pertsonetan oinarrituta osatu da. Analisisirako, Alokabideren, Visasaren eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren 2008ko eta 2012ko diru-sarrera errealak hartu dira aintzat.



# 4

## Aurrekariak

Immigrazioaren fenomenoak estuki loturik dago migrazio-fluxuak sortzen eta jasotzen dituzten herrialdeen egoera ekonomiko eta sozialarekin. Hain zuzen ere, migrazio-fluxuak erakartzeko faktore nagusietako batek zerikusia du migratzaileek bizi-proiektu bat garatzeko dituzten aukera ekonomiko eta sozialekin. Herrialde hartzailea *immigrazio-herrialde* bihurtzen denean, migrazioaren dinamikak gaitasun handia izan ohi du aldaketak eta inpaktuak eragiteko hainbat alderditan: ekonomian, gizartean, demografian eta gizarte-ongizatean, besteak beste.

Azterlan honen bitartez, immigrazioak EAEko aurrekontu publikoetan eta demografian duen eragina aztertu nahi izan da. Ekonomiaren aldetik, immigrazioak besteak beste lan-merkatuan, *per capita* errentan, barne-produktu gordinean (PBG), kontsumoan, gastu sozialean eta zerga-sisteman duen eragina aztertu ohi da. Gure ikerketan, nagusiki, gastu sozialaren eta zerga-sistemaren gaineko inpaktua izan dugu aztergai. Sánchezek, Simónek eta Lázarak (2009) azaltzen duten moduan, immigrazioak zergetan duen eraginari buruzko lehen azterlanak Estatu Batuetan egin ziren, 1990eko hamarkadan. Emaizta kontrajarriak ekarri zituzten azterlanak egin ziren: adibidez, Passel eta Clarkek (1994) kalkulatu zuten immigranteek Gizarte Segurantzatik eta hezkuntzatik jasotzen zutena baino 27.000 dolar gehiago ematen zizkietela dirukutxa publikoei; bestalde, Huddleren (1993) eta Borjasen (1994) azterlanen arabera, immigranteek 16.000 eta 40.000 mila dolar arteko kostua eragiten zuten.

Ildo horretatik, 1990eko hamarkadan antzeko ikerketak egiten hasi ziren Europan, eta, Estatu Batuetan bezala, askotariko emaitzak lortu ziren. Ulrichen arabera (1994), Alemanian positiboa izan zen aurrekontu publikoen gaineko zerga-inpaktua 1984an. Alabaina, Sinn-ek eta beste batzuek (2001) ondorioztatu zuten 1997an negatiboa izan zela saldoa; hau da, nahiz eta immigrazioak ekarpen garbi positiboa egiten zion pentsioen sistemari, eragin negatiboa zuen langabezia-laguntzen zergetan. Suediaren kasuan, Ekbergen arabera (2006), 1970eko hamarkadan immigrazioak zerga-inpaktu positiboa zuen BPGaren ia % 1era arte, baina 80ko hamarkadan desagertu egin zen eragin positibo hori. Danimarkaren kasuan ere, Wadensjö eta Gerdes autoreek (2004) antzeko ondorioak atera zituzten.

Kasu horien eta beste batzuen inguruan dagoen zientzia-literatura enpirikoa aztertuta, ikusi da Sánchezek, Simónek eta Lázarak (2009) immigrazioaren zerga-inpaktuaren ezaugarri erabakigarri batzuk iradoki zituztela:

- Immigranteen kolektiboaren adinak eragina du zerga-inpaktuan. Alegia, demografia-egitura gazte batek zerga-inpaktu positiboa dakar, baina inpaktu positibo horrek balioa galtzen du immigranteek seme-alabak izaten dituztenean eta/edo nagusiagoak diren herritarrak ugartzen direnean.
- Immigranteen hezkuntza mailak ere eragiten du. Alegia, zenbat eta hezkuntza maila eta kualifikazio hobea, orduan eta positiboagoa izango da zerga-inpaktua; bestalde, hezkuntza maila apalagoa dutenek inpaktu negatiboa sortzen dute.
- Lan-merkatua ere faktore garrantzitsua da. Hau da, immigranteek zenbat eta lan-baldintza okerragoak izan, orduan eta zerga-ekarpen txikiagoa egingo dute. Gainera, lan-merkatuaren egoerak ere badu eragina: atzeraldietan, immigranteek gehiago joko dute laguntza-sistemara.

Gure inguruan ere, immigrazioaren inpaktu ekonomikoa eta demografikoa aztergai izan da, eta hala da oraindik ere (Sánchez, Simón eta Lázaro, 2009; Sebastian, 2006; Arriola, Gómez eta Andres, 2008; Conde-Ruiz, García eta Navarro, 2008; De Arce, 2010; Moreno eta Bruquetas, 2011; Godenau, 2012; García, Osuna eta Valera, 2006). 2008an, Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio Zuzendaritzak EAEn horren inguruan eginiko lehen azterlana kaleratu zuen: *Erkidegotik kanpoko immigrazioak EAEn eragiten duen inpaktu ekonomikoa*, Joaquín Arriolak, Carlos Gómezek eta Xabier Andrések zuzendua. Azterlan horretan, zenbait balioespenetan oinarrituta, immigrazioak 1990eko hamarkadaren amaieraz geroztik eta batik bat 2004 eta 2006 artean izan zuen inpaktu ekonomikoa aztertu zuten. Horrenbestez, nazioarteko migrazio-prozesuaren aurreneko aldiko inpaktu ekonomikoa aztertu zen EAEn, oparoaldi ekonomikoaren garaia alegia; orduan, gizartean, ekonomian eta demografian garrantzia hartzen hasi zen migrazioaren fenomenoak.

Ikerketa horren emaitzen arabera, 2006an 233 milioi euroko gastu soziala egotez zekiekeen EAEko erkidegotik kanpoko immigranteei; hau da, gastu sozial osoaren % 4. Bestalde, immigranteek bertako herritarrek baino % 23,5 gehiagoko zerga-ekarpina egiten zuten. Labur esanda, azterlanak erakusten du oparoaldi ekonomikoan EAEko erkidegotik kanpoko herritarrek EAEko ongizate-sistemetatik jasotzen zutena baino gehiago ematen zutela (Arriola, Gómez, Andrés, 2008).

Estatuan ere zenbait azterlan argitaratu dira, eta horiei esker jakin ahal izan da atzerriko immigrazioak zer-nolako inpaktu ekonomikoa izan duen hala oparoaldi ekonomikoan, nola krisialdian. 2006an, Miguel Sebastiánek, Presidentearen Ekonomia Bulegoko zuzendariak (Sebastián, 2006), immigrazioak estatu osoan zuen inpaktu ekonomikoaren emaitzak argitaratu zituen. Zifrek erakusten dutenez, 2006an, atzerriko nazionalitatea duten herritarrek BPGaren % 0,5 ematen zion superabit publikoari, eta ongizate-estatuaren zergadun garbiak ziren, hau da, jasotzen zutena baino gehiago ematen zuten. Beste alderdi positiboetako bat *per capita* errentaren gaineko inpaktua zen: 600 euro baino gehiago areagotu zuen.

Oparoaldi ekonomikoaren inguruko azterlanekin jarraituz, Conde-Ruizek, García eta Navarrok (2008) aztergai izan zuten immigrazioak 2000-2006 aldian autonomia-erkidego bakoitzaren hazkunde ekonomikoan izan zuen inpaktua. Zehazki, immigrazioak autonomia-erkidego bakoitzaren *per capita* errentan zuen eragina aztertu nahi zuten, eta, horretarako, demografiaren, enpleguaren eta produktibitatearen gaineko eraginak ikertu zituzten, hiru faktore horietatik zehazten baitute biztanleko errenta. Haien ikerketaren emaitzen arabera, immigrazioak eragin positiboa du demografian eta enpleguan, baina negatiboa produktibitatean. Halaber, adierazi

zuten immigrazioak inpaktu neutroa izan duela estatu osoko *per capita* errentaren gainean. Autonomia-erkidego batetik bestera, baina, aldeak nabaritu zituzten: immigrazioak eragin positiboa du Errioxan, Murtzian, Gaztela-Mantxan, Kanarietan eta Andaluzian, baina negatiboa Madrilan, Nafarroan, Katalunian, Balearretan eta Aragoian. Azkenik, egileen arabera, BPGaren gaineko inpaktua positiboa da; garai hartan, immigrazioari esleitzen zekiokkeen urteko BPGaren batez besteko hazkundearen % 38. Autonomia-erkidegoei dagokienez, eskualdeko BPGaren gaineko inpaktua positiboa da erkidego guztietan (Conde-Ruiz, García eta Navarro, 2008).

Ikerlerro beretik, baina krisialdia aztergai hartuta, Rafael de Arce (2010) immigrazioak krisialdiaren aurretik eta hasieran izan zuen inpaktu ekonomikoa ikertu zuen; hau da, 2000 eta 2009 arteko denbora-tartea. De Arceren irudiko, sektore pribatuari dagokionez, BPGaren gaineko inpaktu ekonomikoa osoa % 13,2koa da. Gainera, legezko zein legez kanpoko 2.444.000 immigranteren enplegua lotuta legoke bertako 1.624.000 herritarren enpleguarekin. Gizarte Segurantzaren diru-kutxetarako ekarpena, berriz, % 7,5 ingurukoa litzateke. Alabaina, krisiaren eraginak erakusten du adierazleak negatibo bihurtzen ari direla: ehuneko puntu bat baino zertxobait gehiago murriztu zen immigranteek estatuko BPGari egiten dioten ekarpena, hau da, 2008ko % 14,5etik 2009ko % 13,2ra.

Bestalde, beste lan batzuek aztertu dute immigrazioak zer-nolako eragina izan duen estatuko autonomia-erkidegoen aurrekontu publikoetan, herri-administrazioen zerga-inpaktuaren eta gastu sozialaren bidez. Sánchezek, Simónek eta Lázarak (2009) Aragoiko kasua ikertu zuten, eta bi egoera planteatu zituzten atzerriko herritarren errenta mailaren arabera. Haien arabera, 2005ean, atzerriko herritarren diru-sarrerak bertako herritarrenak baino % 30 txikiagoak izanik, immigrazioak sortutako gastu eta diru-sarreraren arteko balantzea negatiboa litzateke, 6,7 milioi euro gutxiago. Ordea, atzerriko herritarren diru-sarrerak bertako herritarrenak baino % 20 txikiagoak izanik, balantzea positiboa litzateke, 1,7 milioi euro gehiago. Sánchezek, Simónek eta Lázarak (2009) ondorioztatzen dutenez, 2005ean negatiboa izan zen atzerriko herritarren zerga-saldoa, jasotako laguntzak ez zituztelako finantzatu zergen bidez.

Jaének eta Piedrak (2008), berriz, Andaluziaren 2006ko kasua aztertu zuten. Autoreen hitzetan, erkidego horretan immigranteak ez ziren ugaritu lanerako adina zuten herritarrak iritsi zirelako bakarrik; familiak berriz elkartu izanak ere eragin zuen hori, eta, horren ondorioz, areagotu egin ziren ongizate-sistemen premiak. Gainera, atzeritarren kolektiboak errenta maila txikiak dituzte, gizarte-laguntzak jaso ohi dituzte. Horrenbestez, Andaluziaren kasuan ere kontuan hartzeko aldagaiak dira adinaren eta errenta mailaren faktoreak (lan-merkatuarekin lotuta), Sánchezek, Simónek eta Lázarak (2009) alde aurretik aipatu zituztenak. Jaéne eta Piedraren (2008) azterlanaren emaitzak erakusten duenez, beraz, 2005ean Andaluzian herri-administrazioek egindako ekarpena handiagoa izan zen immigrazioaren zergetatik bildutako zenbatekoa baino.

Laburbilduz, nazioarteko, estatuko eta EAeko ikerlanek askotariko emaitzak erakusten dituzte immigrazioak herrialde hartzaileetan duen eragin ekonomikoa eta fiskalaren inguruan. Hein batean, azterlanetako bakoitzak analisia egiteko erabiltzen duen metodologia izan liteke alde horien arrazoietakoa bat. Dena dela, inpaktua alderdi makroekonomikotik aztertu duten lanak bat datoz gauza batean: oparaldi ekonomikoren garaian, immigrazioak ekarpen positiboa egin dio Espainiako ekonomiari. Zergen inpaktuari dagokionez ere, emaitzak askotarikoak dira. Arriolak, Gómez eta Andrések EAerako eginiko azterlanak (2008) zerga-balantze positiboa erakusten du, eta Aragoiren eta Andaluziaren kasuan, berriz, balantzea negatiboa da. Litekeena da desberdintasun horiek zerikusia izatea eskualde bakoitzeko immigranteen ezaugarriekin (adin-

egitura), giza kapitalarekin eta lan-merkatuaren ezaugarriekin; horixe iradoki zuten Sánchezek, Simónek eta Lázarak (2009), mundu osoko hainbat kasu ikertu ostean.

Demografiari dagokionez, INEren datuen arabera, estatuak egungo joera demografikoekin jarraitzen badu, 2,6 milioi biztanle galduko lituzke datozen 10 urteotan; hau da, orain 46,7 milioi biztanle daude, baina 2023an 44,1 milioi izango ginateke.

Hazkunde begetatiboari dagokionez, hurrengo urteetan ere behera egingo luke jaiotza kopuruak (hori da joera 2009az geroztik). Hala, hamar urtean, urteko jaiotzen kopuruak behera egingo du: 2022an, % 24,9 haur gutxiago jaioko dira. Emakumeen ugalkortasuna areagotuz joango da hurrengo urteetan (emakume bakoitzeko, batez beste, 1,41 seme-alaba), baina, analisien arabera, hazkundera negatiboa izango da, emakume gutxiago egongo baitira seme-alabak izateko adinean. Luzerako analisi baten arabera, jaiotako haurren kopurua ez da handituko 2030era arte, eta ondoren, 2040tik aurrera, behera egingo du. Ama izateko batez besteko adina 31,5era iritsiko da 2051. urtean.

Euskadiko egoera ere ez da oso bestelakoa. Eustat – Estatistikaren Euskal Institutuaren arabera, 2026an 2.077.000 biztanle egongo dira, migrazio-saldoa negatiboa izango delako eta hildakoak gehiago izango direlako jaiotakoak baino.

2013an, mundu osoan 7,2 mila milioi biztanle zeuden gutxi gorabehera, eta gehientsuenak (% 82,5) gutxien garatutako eskualdeetan bizi ziren. Aurreikuspenen arabera, mundu osoko biztanle kopurua heren bat handituko da hurrengo lau hamarkadetan, garatzeko bidean diren herrialdeetan batik bat. Garatzeko bidean diren sei herrialdetik batean, tartean Afrikako hiru, halako bi ugarituko dira biztanleak denbora horretan. Migrazioarengatik ez balitz, garatutako herrialdeetako biztanleria gehieneko kotara iritsiko litzateke 2020an, eta ondoren % 7 urritu hurrengo 30 urteetan. Horixe izango da, hain zuzen, datozen 50 urteetako joera: Europako biztanleen proportzioa txikitu eta Afrikakoena handitu egingo da.

Gaur egun, biztanleria zahartzen ari da. Aurreikuspenen arabera, 2050ean Afrika ez beste kontinente guztiek 60 urtetik gorako biztanle gehiago izango dituzte 15 urtetik beherakoak baino. Izan ere, heriotza- eta jaiotza-tasa jaitsi egingo dira, eta horrek eragina du garatzen ari diren herrialdeetan. Herrialde horietan, batez besteko adina 38 urte izango da, eta garaturikoetan, berriz, 45era igoko da.

Ondorioak eztaba daezinak dira: lan egiteko adinean dauden herritarrak 1.000 milioi ugarituko dira 2050erako, baita egungo migrazio-fluxuen antzekoak gertatzen badira ere. Giza garapenari buruzko 2009ko txostenak berak iragartzen du hurrengo 10 urteetan garabidean diren herrialdeetako lan-merkatuan sartzen direnek gainditu egingo dutela egun garaturiko herrialdeetan bizi diren lanerako adineko pertsonen kopuru osoa.

Mundu osoko datu horiek agerian uzten dute prozesu horrek eragina duela mendekotasun-harremanean, baita estatuaren eta EAEn mailan ere, jarraian ikusiko dugun moduan. Hau da, datozen 35 urteetan, jaiotza-tasak apalak direnean eta haurren proportzioa urritzen denean (adinean aurrera egin eta lan egiteko adinera iritsiko baitira), adin aurreratuko pertsonen proportzioa nabarmen handituko da garatutako herrialdeetan: gutxi gorabehera, lan egiteko adinean ez dauden 71 pertsona egongo dira, lan egiteko adinean dauden 100 pertsonako.

Immigrazio maila apalengatik ez balitz, mendekotasun-harreman horiek are sakonagoak izango lirateke. Izan ere, garatutako herrialdeek immigrazioa erabat oztopatuko balute, harremana 78ra areagotuko litzateke 2050erako. Horrenbestez, mendekotasun-tasa hain handia izango denez, eragina izango du zaintzen esparruan, hezkuntza-sisteman, osasun-arloan... Zergekin sistemari eusten laguntzen dioten pertsonen kopurua zenbat eta gehiago urritu, orduan eta zailagoa izango da gastuei eustea.

Hori ikusirik, migrazio-politika ez hain murriztaileak ezarri beharko lirateke nahitaez. Neurri horrekin bakarrik, ordea, ez lirateke konponduko azaldu ditugun arazo demografikoak. Estatuek irtenbide bat baino gehiago proposa ditzakete, hala gizarte-babeserako sistemei eusteko, nola lan-merkatuaren langile-faltari erantzuteko. Alabaina, gaur egun, herrialde garatuetako immigrazioak on egingo die immigrantei eurei zein bertako biztanleei.

Nazio Batuen Biztanleria Funtsak, munduko biztanleriaren egoerari buruzko txosten batean, gogoeta egin du jatorriko herrialdetik kanpo bizi diren 214 milioi pertsonen inguruan, eta nazioarteko migrazioa garapenaren aldeko lan-indartzat jo du. Funtsaren esanetan, estatuek garapenerako tresnatzat eta kapital-iturritzat hartu beharko lituzkete migratzaileak, langile-faltari erantzun baitieziaiokete ugalkortasun-tasa gero eta apalagoek lanerako adinean dauden herritarren kopurua murrizten duten herrialdeetan.





# 5

## EAEko diru-kutxa publikoen gaineko eragin ekonomikoa

### Emaitza nagusiak: balantzea

EAEko diru-kutxa publikoen gaineko inpaktu ekonomikoa 1. taularen emaitzetan dago laburtuta. Bertan jasota daude, alde batetik, EAEko atzerriko herritarrei 2008 eta 2012an egotz dakizkiekeen inbertsio sozialeko gastuak, eta, bestetik, kolektibo horrek aldi horretan zergen eta gizarte-kotizazioen bidez diru-kutxa publikoetan eragin zituen diru-sarrerak.

1. taula. Biztanleria osoak eta biztanle atzeritarrek gizarte-inbertsioan eragindako gastuak eta diru-kutxa publikoetara bideratutako diru-sarrerak. 2008-2012

		2008			2012		
		Atzeritarrak	Guztira	%	Atzeritarrak	Guztira	%
INBERTSIO SOZIALA	Gizarte-prestazioak eta -zerbitzuak	118.328.670	1.681.034.107	7,0	236.840.810	2.124.040.029	11,2
	Hezkuntza	130.895.531	2.074.735.454	6,3	172.649.668	2.244.520.484	7,7
	Osasuna	100.416.729	3.176.160.426	3,2	144.711.859	3.399.651.186	4,3
	Etxebizitza	22.353.538	520.414.521	4,3	39.186.586	290.313.485	13,5
	GUZTIRA	371.994.468	7.452.344.508	5,0	593.388.923	8.058.525.184	7,4
DIRU SARRERAK	PFEZa	112.830.198	4.199.653.000	2,7	201.517.141	4.453.753.000	4,5
	BEZa	54.249.323	1.792.650.563	3,0	84.026.516	2.351.291.120	3,6
	Zerga bereziak	55.982.854	1.393.919.000	4,0	59.742.832	1.497.171.000	4,0
	Etxebizitza	11.085.719	349.200.565	3,2	9.054.908	113.077.782	8,0
	Kotizazioak	208.949.037	6.331.789.000	3,3	277.245.295	6.447.565.000	4,3
	GUZTIRA	443.097.131	14.067.212.128	3,1	631.586.692	14.862.857.902	4,2
	Aldea	71.102.663			38.197.770		

Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien Aurrekontuak, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa, EUSTAT eta INE. Egileek egina.

Hala 2008an nola 2012an, kolektibo horrek diru-kutxa publikoei diru-sarreraren bitartez eragindako ekarpena handiagoa izan zen ongizate-sistemari eragindako gastua baino. 2008an, saldoa 71 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta 2012an, berriz, 38 milioi eurotik gorakoa.

## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

Ikusten dugunez, krisiaren eraginez murriztu egin da bi horien arteko aldea (32 milioi euro gutxiago). Hau da, krisiaren inpaktua antzeman da saldo positiboa murriztearen bidez, baina krisia gorabehera, *jasotzen dutena baino gehiago ematen dute*.

Datu osoei erreparatzen badiegu, 2008an biztanle atzerritarrek 371.994.468 euroko gastua eragin zuten; kalkulaturako gastu osoaren % 5, alegia. 2012an, gastu horrek 221 milioi euro baino gehiago egin zuen gora; hain zuzen ere, 593.388.923 euroko gastua eragin zuten, hau da, gastu osoaren, % 7,4.

Diru-sarrerei dagokienez, biztanle atzerritarrek diru-kutxa publikoei eginiko ekarpena 443.097.131 eurokoa izan zen 2008an; ekarpen osoaren % 3,1. 2012an, berriz, diru-sarrerek 190 milioi euro egin zuten gora; hau da, 631.586.692 milioiko ekarpena egin zuten, ekarpen osoaren % 4,2. Horrenbestez, krisi ekonomikoa eragin handia izan bazuen ere, biztanle atzerritarrek herri-administrazioetan eragiten duten diru kopurua handiagoa da ongizate-sistemak erabiltzeagatik sortzen duten gastuaren zenbatekoa baino.

Beste alde batetik, kontuan hartzen badugu atzerritarrek demografian duten pisua (2008an % 5,4 eta 2012an % 6,9), krisiaren aurretik kolektibo horrek eragiten zuen gastu soziala pisu demografikoa baino pixka bat txikiagoa zen (% 5eko gastua eta % 5,4ko pisua); diru-sarrerak, berriz, pisu demografikoa baino txikiagoak ziren: % 3,3. 2012an, ordea, guztiz aurkakoa zen egoera: gastu sozialak gora egin zuten, eta pisu demografikoa baino handiagoa izan zen (% 7,4ko gastua eta % 6,9ko pisua).


Gizarte-inbertsioan eragindako gastuen partida zehatzak aztertuz gero, ikus daiteke 2008an biztanle atzerritarrek diru-laguntzen eta gizarte-zerbitzuen gastu osoaren % 7 eragin zutela; hezkuntzari dagokionez, berriz, gastuen % 6,3 eragin zuten. Osasunari eta etxebizitzari dagokienez, aldiz, % 3,2 eta % 3,4 izan ziren, hurrenez hurren. Hau da, ehuneko gastu osoaren % 5era ere ez zen iritsi. 2012an, bestalde, etxebizitzaren gastua asko handitu zen: % 13,4 izan zen, hain zuzen ere –hala ere, oso pisu txikia izan zuen balio absolutuei dagokienez, gastu osoa aintzat hartuz gero–; diru-laguntzen eta gizarte-zerbitzuen gastuak (% 11,2) eta hezkuntzaren gastuak ere (% 7,7) gora egin zuten. Urte horretan, osasun-arloari zegokion gastua % 4,3 izan zen; hori izan zen gastu osoaren % 7,4tik beherako bakarra.

Diru-sarreraren kasuan, 2008an biztanle atzerritarrek BEZaren diru-sarreraren % 3 eta zerga berezien % 4 osatzen zuten, bi kasuetan kopuru osoaren % 3,3 baino gehiago. PFEZaren kasuan, % 2,1 izan zen; etxebizitzari dagokionez, % 3,2 eta gizarte-kotizazioei dagokienez, % 3,3. Hiru kasu horietan, diru-sarrerak pisu demografikoaren ehuneko osoa baino baxuagoak izan ziren. 2012an, ehunekoak aldatu egin ziren: etxebizitza % 8ra igo zen, BEZa % 3,6ra, eta PFEZa % 4,5era. Hiru diru-sarrera mota horiek zenbateko osoaren % 4,4ren gainetik zeuden. Zerga bereziak % 4 izan ziren, eta kotizazioak % 4,3.


Zenbateko absolutuetan, biztanle atzerritarren diru-sarrerak igotzearen arrazoi nagusia da PFEZarekin eta gizarte-kotizazioekin diru gehiago bildu dela (+88 milioi eta +68 milioi, hurrenez hurren), eta BEZean ere, pixka bat bada ere, gehiago bildu dela (+29 milioi), bai eta zerga bereziak ere (+3 milioi). Etxebizitzagatiko diru-sarrerak, ordea, pixka bat gutxitu dira (-2 milioi).

Emaitzak biztanle kopuruaren arabera aztertzean, ikus daiteke atzerriko biztanleen *per capita* gastua 2008an 3.170 eurokoa zela biztanleko; eta biztanleria osoaren gastu *per capita*, berriz,

1. grafikoa. EAEko biztanleria osoak eta biztanle atzerritarrek gizarte-inbertsioan eragindako *per capita* gastua



2. grafikoa. EAEko biztanleria osoak eta biztanle atzerritarrek gizarte-inbertsioan eragindako *per capita* diru-sarrerak



Iturria: Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien Aurrekontuak eta INE. Egileek egina.

Iturria: Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa, EUSTAT eta INE. Egileek egina.

3.653 eurokoa zen. 2012ko emaitzei dagokionez, ikus daiteke atzerriko biztanleen *per capita* gastua 3.906 eurokoa zela; eta biztanleria osoaren *per capita* gastua, berriz, 3.947 eurokoa, EAEko biztanle bakoitzeko. Horrenbestez, krisiarekin, biztanle atzerritarren gastu maila biztanleria osoarenarekin parekatu da, gorakada izan baita diru-laguntza sozialen eta etxebizitzaren arloan. Alderaketa horrek eta arestian aipatutako partiden igoerak, halaber, esan nahi du krisiak gehiago eragin diela eta ondorio gehiago ekarri dizkiela biztanle atzerritarrei.

Diru-kutxa publikoetara doazen *per capita* diru-sarreraren kasuan, biztanle atzerritarren eta biztanleria osoaren arteko aldea handiagoa da. 2008an, biztanle atzerritarren diru-ekarpenak 3.776 eurokoak izan ziren biztanleko, eta 2012an, berriz, 4.158 eurora iritsi ziren. Horrek esan nahi du lau urtean 382 euro areagotu zirela biztanleko. Hala eta guztiz ere, zenbateko horiek biztanle kopuru osoaren zenbatekoak baino nabarmen txikiagoak dira; izan ere, 2008an herri-administrazioarako *per capita* diru-sarrerak 6.896 eurokoak izan ziren biztanleko, eta 2012an, berriz, 7.281 eurokoak. Alde handi horren zergatia da biztanle atzerritarren kolektiboa egoera sozioekonomiko okerragoan dagoela, biztanleria osoarekin alderatuta baliabide gutxiago baitituzte.

## Krisialdiko bilakaera

2008 eta 2012 arteko bilakaerak garbi erakusten du krisiaren eragina. 2. taulan ikus daiteke diru-sarreraren zein gastuen hainbat partidak ez dutela bilakaera bera izan. Desberdintasun hori nabarmena da biztanle atzerritarren eta biztanleria osoaren artean ere. Gizarte-inbertsioan egindako gastuaren bilakaeran ikus daiteke atzerritarren kolektiboaren kasuan % 59,5 egin duela gora lau urte horietan eta biztanleria osoaren kasuan, berriz, % 8,1 egin duela gora. Aurretik esan bezala, bilakaera desorekatu horrek adierazten du krisiak eragin handiagoa izan duela atzerriko herritarren artean.

Bilakaera hori partidaka aztertuz gero, ikus daiteke atzerritarren kasuan diru-laguntzek eta gizarte-zerbitzuek bikoiztu egiten dutela gastua, % 100eko gorakada gertatu baita; biztanleria osoaren kasuan, berriz, % 26,4 handitu da gastua. Gainerako partidei dagokienez, atzerritarren kolektiboaren gastuak % 75 egin du gora etxebizitzan, % 44,1 osasun-arloan eta % 31,9 hezkuntzan. Joera hori biztanleria osoaren bilakaerarekin alderatuz gero, ikus daiteke biztanle atzerritarrek eragindako gastuak nabarmenago egin duela gora. Desberdintasun horren azalpena da atzerritarren kolektiboa gizarte-egoera zailagoan dagoela; horregatik igo dira hainbeste diru-laguntzak. Horrez gain, atzerritarren kopurua areagotu egin da, eta, ondorioz, igo egin da ongizate-sistemak erabiltzen dituzten kideen kopurua.

2. taula. Biztanleria osoak eta biztanle atzerritarrek gizarte-inbertsioan eragindako gastuen eta diru-kutxa publikoei eragindako diru-ekarpenen bilakaera (%). 2008-2012


		2008-2012ko bilakaera (%)	
		Atzerritarrak	Guztira
INBERTSIOA	Gizarte-laguntzak + -zerbitzuak	100,2	26,4
	Hezkuntza	31,9	8,2
	Osasuna	44,1	7,0
	Etxebizitza	75,3	-44,2
	GUZTIRA	59,5	8,1
DIRU SARRERAK	PFEZa	78,6	6,1
	BEZa	54,9	31,2
	Zerga bereziak	6,7	7,4
	Etxebizitza	-18,3	-67,6
	Kotizazioak	32,7	1,8
	GUZTIRA	42,5	5,7

Iturria: Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien Aurrekontuak, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa, EUSTAT eta INE. Egileek egina.

Diru-sarreraren kasuan, atzerritarren kolektiboaren eta biztanleria osoaren bilakaera oso desberdina da. Diru-sarrera guztiak kontuan hartuta, 2008 eta 2012 artean % 42 egin du gora biztanle atzerritarrek diru-kutxa publikoei eginiko ekarpenak; biztanleria osoaren ekarpenak, berriz, % 5,7 egin du gora. Partidak banan-banan aztertuz gero, ikus dezakegu atzerritarren diru-sarrerak igo izana honako hauen igoeragatik dela: PFEZa % 78, BEZa % 54 eta gizarte-kotizazioak % 32. Zerga berezien bidezko diru-sarrerek ere gora egin dute, baina ez horrenbeste; zehazki, % 6. Etxebizitzaren arloko diru sarrerek, berriz, % 18 egin dute behera. Biztanleria osoaren kasuan, diru-sarrerak igo izana BEZagatik da bereziki, % 31,2 egin baitu gora. Gainerakoak % 7,4 baino gutxiago igo dira, eta etxebizitzaren kasuan % 67 egin dute behera.

Biztanle atzerritarren artean diru-sarreraren ehunekoa handitu da, hein handi batean, kolektibo hori asko ugaritu delako azterlan honetan aztertutako urteetan (2008 eta 2012 bitartean), eta, neurri batean, kolektiboa gehiago erregularizatu delako; izan ere, horrek bide ematen du diru-kutxa publikoei ekarpen handiagoa egiteko, PFEZaren ordainketa eta Gizarte Segurantzako kotizazioak direla eta.

3. grafikoa. Biztanle atzerritarrek gizarte-inbertsioan eragindako gastuen eta diru-kutxa publikoei egindako diru-ekarpenaren bilakaeran (%) 2008-2012



Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien Aurrekontuak, Euskadiko Zerga Koordinatzaileko Organoa, EUSTAT eta INE. Egileek egina.

3. grafikoa zehatzago ikus daiteke zenbateko eragina izan duten biztanle atzerritarrek hala gastuen, nola diru-sarreraren bilakaeran. Kolektibo horrek eragindako gastua igoera osoaren % 36 da, eta diru-sarreraren kasuan, igoeraren % 26. Partidei banan-banan erreparatu gero, ikus dezakegu atzerritarren kolektibo horri dagokiola diru-laguntzetan eta gizarte-zerbitzuetan gertatu den igoeraren % 26, hezkuntzako igoeraren % 24 eta osasun-arloko igoeraren % 19. Diru-sarrerei dagokienez, gizarte-kotizazioen igoeraren % 59 biztanle atzerritarrek eragindakoa da, bai eta PFEZaren % 34 ere.

## Gastuaren egitura


4. eta 5. grafikoez erakusten dute nola dauden banatuta biztanle atzerritarrek eta biztanleria osoak gizarte-inbertsioan eragindako gastuen eta haien diru-sarreraren ehunekoak. 4. grafikoa ikus daitekeen moduan, biztanle atzerritarrek eta biztanleria osoak desberdin erabili dituzte ongizate-sistemak hala 2008an, nola 2012an. Honako honetan oinarritzen da, batez ere, alde hori: atzerritarrek gehiago erabiltzen dituzte diru-laguntzak eta gizarte-zerbitzuak, eta biztanleria osoak, berriz, gehiago erabiltzen du osasun-sistema.

2008an, biztanle atzerritarren gastuaren % 31,8 diru-laguntzetara eta gizarte-zerbitzuetara zegoen bideratuta; 2012an, berriz, gastu hori % 39,9koa zen. Biztanleria osoari dagokionez, 2008an gizarte-inbertsioan eragindako gastuaren % 42,6 osasun-sistemari zegokion, 2012an bezalaxe. Alde horren arrazoia da, batetik, biztanle atzerritarren egoera soziala zailagoa dela eta, bestetik, biztanleria osoak gehiago erabiltzen dituela demografia-egiturarekin zerikusia duten zerbitzuak. Biztanle atzerritarren kolektiboa gaztea da; adineko pertsona oso gutxi dago, eta horiek erabiltzen dute gehienbat osasun-sistema.

## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

Horrenbestez, profilak oso desberdinak dira elkarren artean, eta alde horiek nabarmen antzematen dira zenbait alderditan (adibidez, herri-administrazioaren gastuan). Hala, atzerriko biztanleen artean herritar gazteagoak daude, zailtasun ekonomiko gehiago dituzte eta gizarte-egoera ahulagoan daude; bertako herritarrak, berriz, zaharragoak dira, gehiago erabiltzen dute osasun-laguntza eta diru aldetik hobeto bizi dira oro har.


4. grafikoa. Biztanleria osoak eta biztanle atzerritarrek gizarte-inbertsioan eragindako gastua, partidatan banatuta (%)



Iturria: Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien Aurrekontuak, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa, EUSTAT eta INE. Egileek egina.

Diru-sarreraren kasuan, antzekoagoa da atzerritarren kolektiboaren eta biztanleria osoaren banaketa. Desberdintasun nagusia 2008an aurki daiteke: hain zuzen ere, urte horretan, biztanle atzerritarren PFEZaren bidezko diru-sarrerak % 25,5 ziren, eta biztanleria osoarenak, berriz, % 31,1. Gainerako zergei dagokienez, aldeak ez ziren oso handiak. 2012an, ordea, are txikiagoak ziren aldeak.

5. grafikoa. Biztanleria osoak eta biztanle atzerritarrek zergen eta kotizazioen bidez eragindako diru-ekarpenaren banaketa (%)



Iturria: Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa, EUSTAT eta INE. Egileek egina.

2012an, PFEZa biztanle atzerritarren ekarpenaren % 31,9 izan zen, eta biztanleria osoarena ere oso antzekoa izan zen: % 31,3. Hala ere, atzerritarren kolektiboak zein biztanleria osoak batez ere gizarte-kotizazioen bidez egin zuten ekarpena. Bi kasuetan eta bi urteetan, diru-kutxa publikoei eginiko ekarpen ekonomikoaren % 43 kotizazioen bidez egin zen.

## Gizarte-inbertsioaren analisisa, partida zehatzetan banatuta

Immigrazioak EAEko diru-kutxa publikoetan izan duen eragina aztertu dugu orain arte, eta atal honetan, berriz, gizarte-inbertsioaren gastua osatzen duten partidetak bakoitza aztertuko dugu. Analisi xehatu honi esker, zehatzago jakingo dugu atzerriko nazionalitatea duten herritarrek zenbateko eragin ekonomikoa izan duten euskal ongizate-sisteman.

### Gizarte-zerbitzuak eta -laguntzak

Gizarte-zerbitzuen eta -laguntzen inbertsioa hainbat aurrekontu-partidaz osatua dago. Partida horietako bakoitzak askotariko diru-laguntzak eta gizarte-laguntzak hartzen ditu barnean: besteak beste, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO), gizarte-larrialdietako laguntzak (GLL), udaleko gizarte-laguntzak, udaleko oinarritzko gizarte-zerbitzuak<sup>3</sup>, eta adinekoei eta mendeko pertsonari laguntzeko politikak (egoitzak, eguneko zentro publikoak eta zentro itunduak<sup>4</sup>, adibidez).

3. taulan ikus dezakegunez, 2008an 1.681 milioi eurokoa izan zen EAEko diru-laguntzetara eta gizarte-zerbitzuetara bideraturiko inbertsio sozialaren gastu osoa; 2012an, zifra hori 2.124 milioiokoa izan zen. Beraz, gastua 443 milioi areagotu zen.

3. taula. Atzerriko biztanleei EAEko gizarte-zerbitzu eta -laguntzengatik egotz dakiekeen gastua

	2008			2012			2008-2012		
	Atzerritarrak	Guztira	%	Atzerritarrak	Guztira	%	Atzerritarrak	Guztira	%
DSBE eta beste gizarte-laguntza batzuk	51.001.777	168.079.417	30,3	166.965.000	374.228.655	44,6	115.963.223	206.149.238	56,3
Beste laguntza batzuk	65.439.558	1.165.530.093	5,6	67.988.474	1.402.386.776	4,8	2.548.916	236.856.683	1,1
Adinekoak + mendeko pertsonak <sup>5</sup>	1.887.335	347.424.597	0,5	1.887.335	347.424.597	0,5	0	0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>118.328.670</b>	<b>1.681.034.107</b>	<b>7,0</b>	<b>236.840.810</b>	<b>2.124.040.029</b>	<b>11,2</b>	<b>118.512.140</b>	<b>443.005.922</b>	<b>26,8</b>

Iturria: PGDI. Egileek egina.

<sup>3</sup>Oinarritzko gizarte-zerbitzuak ezin izan dira analisisian sartu, ez dagoelako informazio nahikorik erabiltzaileen kopuruari eta aurrekontu-partidei buruz.

<sup>4</sup>Analisitik kanpo utzi dira pentsioak, konparazio-analisisa desorekatu egingo luketelako; izan ere, atzerriko biztanleen demografia-egituragatik beragatik, prestazio hori hutsala da kolektibo horrentzat.

<sup>5</sup>Partida honetarako, aintzat hartu dira 2010erako datuak, erabiltzaileei eta aurrekontuei buruz eskura dagoen informazioan oinarrituta.


## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

2008an, biztanle atzerritarrek eragindako gastua 118 milioi eurokoa izan zen, hau da, gastu osoaren % 7. 2012an, kolektibo horren gastua 236 eurokoa izan zen, hau da, gastu osoaren % 11,2. 2008-2012 aldian, 118 milioi euro handitu zen atzerriko biztanleei gizarte-laguntza eta -zerbitzuengatik egotz dakiekeen gastua; hortaz, lau urtean % 100 handitu zen. Gorakada handi horrek agerian uzten du kolektibo horrek eragin izugarria duela krisiaren diru-kutxa publikoetan, eta kolektiboak premia handia duela eta egoera ahulean dagoela sozioekonomikoki.

Atzerritarren kolektiboak partidetako bakoitzean duen pisuari erreparatuz gero, ikusten dugu 2008an DSBEren eta beste laguntza batzuen gastuaren % 30,3 zegokiola eta 2012an 14 puntu igo zela ehuneko hori (% 44,6). Bestalde, beste laguntza batzuk partidan (hor dago langabeziagatik laguntza), 2008an % 5,6 zegokion, eta 2012an % 4,8. Ehuneko horiek gizarte-laguntzen eta -zerbitzuen gastu osoaren behetik daude, eta, gainera, beherazko joera dute. Azkenik, ia-ia pisurik ez dute adinekoentzako eta mendeko pertsonentzako laguntza eta zerbitzuetan.

6. grafikoak atzerriko biztanleen eta biztanleria osoaren partiden arabeko gastuaren ehunekoaren banaketa erakusten du. Ikus dezakegunez, gastuaren egitura desberdina da biztanle atzerritarren eta biztanleria osoaren artean, nagusiki, atzerritarren kolektiboak oso-oso gutxi erabiltzen dituelako adinekoentzako eta mendeko pertsonentzako zerbitzuak. 2008an, atzerriko nazionalitatea duten herritarrek, gizarte-laguntzei eta -zerbitzuei dagokienez, % 43,1eko gastua eragin zuten DSBEen eta beste gizarte-laguntza batzuetan, eta % 55,3koa beste laguntza batzuetan (langabeziakoan, kasurako). Biztanleria osoaren kasuan, gastuaren % 20,7 adinekoentzako eta mendeko pertsonentzako laguntzarekin loturiko gizarte-zerbitzuetarako erabili zen, % 69,3 beste laguntza batzuetarako, eta % 10 DSBErako eta beste gizarte-laguntza batzuetarako.

6. grafikoa. Atzerriko biztanleei eta biztanleria osoari EAeko gizarte-zerbitzu eta -laguntzengatik egotzitako gastuaren banaketa



Iturria: PGDI. Egileek egina.

2012an, aldaketa nagusia biztanle atzerritarren gastuaren banaketan gertatu zen: izugarri areagotu ziren DSBE eta beste gizarte-laguntza batzuk (% 70,5era), eta beste laguntza batzuek % 28,7ra arte egin zuten behera. Alde horren arrazoi nagusia da atzerritarren kolektiboak gutxiago erabili zituela langabeziagatik prestazioak eta, beraz, prekaritate handiagoarekin lan egin zuela. Hau da, kontraturik gabeko enplegu gehiago lortu zituzten, eta, beraz, ezin izan zuten langabeziagatik prestaziorik jaso. Nolanahi ere den, ezin dugu bazter utzi krisiak lehen



urteetan atzeritarrengan izan zuen eragin handia: 2012rako, kenduta zegoen langabeziagatiko diru-laguntzak jasotzeko eskubidea, aurreko urteetan erabili zirelako.

Hau da kolektibo horrek nagusiki diru-laguntzak erabiltzeko arrazoietako bat. Biztanleria osoaren kasuan, bilakaera aldatu egiten da, baina ez atzerriko biztanleen kasuan bezainbeste. DSBEren eta beste laguntza sozial batzuen pisuak ehuneko 7 puntu baino gehiago egin du gora, % 17,6ra arte; beste laguntzek apur bat egin dute behera, % 66ra arte, eta adinekoentzako eta mendeko pertsonentzako laguntzak, berriz, % 16,4koak dira.

## Hezkuntza

Atal honetan, hezkuntza-sistemari dagokion gizarte-inbertsioaren gastua dugu aztergai<sup>6</sup>. 4. taulan hezkuntza mailaren arabeko emaitza globalak daude jasota, 2008 eta 2012rako. 2008an, atzerriko biztanleek hezkuntzako gastu osoaren % 6,3 eragiten zuten, eta 2012an, berriz, % 7,7; beraz, atzeritarren gastua 1,4 puntu handitu da. Hezkuntza mailen arabeko analisiak alde handiak erakusten ditu, eta horrek esan nahi du kolektibo atzeritarrak gehiago parte hartu duela hezkuntza-sisteman.

Hezkuntza mailen arabera, ikus dezakegu atzerriko nazionalitatea duten biztanleek HHEn eragindako gastua HHEren gastu osoaren % 24,9 izan zela 2008an, eta 2012an, berriz, % 42,1. Horrenbestez, 17 puntu areagotu da arlo horretako gastua. Bestalde, unibertsitate-ikasketen gastuaren ehunekoa txikia da: % 1,3 2008an eta % 1,5 2012an. Datuok erakusten dutenez, biztanle atzeritar gutxi egiten dituzte unibertsitateko ikasketak EAEn. Haur-Lehen Hezkuntzari eta Bigarren Hezkuntza-Lanbide Heziketari dagokienez, 2008an atzeritarren kolektiboak Haur-Lehen Hezkuntzako gastuaren % 6,3 eragin zuen, eta Bigarren Hezkuntza-Lanbide Heziketako gastuaren % 7,2. 2012an, ehunekoa 1,1 handitu zen Haur-Lehen Hezkuntzarako, eta 1,6 Bigarren Hezkuntza-Lanbide Heziketan.

4. taula. Atzerriko biztanleei EAEko hezkuntza-sistematik egotz dakiekeen gastua. 2008 eta 2012

	2008			2012			2008-2012		
	Atzeritarrak	Guztira	%	Atzeritarrak	Guztira	%	Atzeritarrak	Guztira	%
Haur eta LH	50.731.459	808.056.795	6,3	68.249.841	924.818.489	7,4	17.518.382	116.761.694	1,1
BH eta Lanbide H.	64.696.410	893.613.985	7,2	83.118.191	938.500.365	8,9	18.421.781	44.886.380	1,6
Unibertsitatea	4.096.417	327.423.371	1,3	5.084.579	342.686.676	1,5	988.162	15.263.305	0,2
HHE	11.371.244	45.641.303	24,9	16.197.058	38.514.954	42,1	4.825.814	-7.126.349	17,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>130.895.530</b>	<b>2.074.735.454</b>	<b>6,3</b>	<b>172.649.669</b>	<b>2.244.520.484</b>	<b>7,7</b>	<b>41.754.139</b>	<b>169.785.030</b>	<b>1,4</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Egileek egina.


7. grafikoak konparatu egiten ditu biztanleria osoaren eta atzerriko biztanleen gastuaren banaketa, ehunekoen arabera. Konparazio horretan, ikus dezakegu bi banaketak oso antzekoak direla eta gastua Haur-Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntza-Lanbide Heziketan kontzentratzen dela. Kolektibo atzeritarrak, Lehen-Haur Hezkuntzan, % 38,8ko gastua eragin zuen 2008an eta % 39,5koa 2012an; Bigarren Hezkuntzan, berriz, % 49,4ko gastua eragin zuen 2008an, eta % 48,1koa 2012an. Gastu askoz ere txikiagoa eragin zuten HHEn (% 9,4) eta

<sup>6</sup>Metodologiaren eranskinean jasota daude gastuaren kalkuluari buruzko informazioa dakarten taulak.

## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

unibertsitatean (% 2,9). Biztanleria osoaren kasuan, datuak alderantzikatu egiten dira: % 15,3ko gastua eragin zuen unibertsitatean 2012an, eta % 1,7koa baino ez HHEn.

7. grafikoa. Atzerriko biztanleei EAEko hezkuntza-sistemagatik egotz dakiekeen gastuaren banaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Egileek egina.

Euskal hezkuntza-sisteman, atzerriko biztanleek batik bat irakaskuntza publikora jotzen dute, han egiten baitituzte matrikulazio gehienak<sup>7</sup>. Haur-Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntza-Lanbide Heziketan parte hartzen dute, baina baita HHEn ere; HHEn, erlatiboki pisu nabarmena dute, nahiz eta absolutuki txikiagoa izan horko gastua. Kontrara, ikusten da atzerriko biztanle gutxi jotzen dutela unibertsitatera. Horrek zerikusia du kolektiboaren egitura demografikoarekin: kolektiboko bigarren belaunaldiak nagusiki hezkuntza maila apalagoetan daude, eta, gainera, kide gehienak klase ertain-baxukoak dira, hau da, historikoki zailagoa izan zaie unibertsitateko hezkuntza-sistemara sartzea.

## Osasuna

Atzerriko herritarrek osasun-arloan zenbaterainoko gastua sortu duten kalkulatzeko, EAEko adin-taldearen arabera osasun-gastua hartu da oinarri<sup>8</sup>. Osasun-sistemak egitura ekonomiko konplexua du, askotariko inbertsioak eta gastuak baitaude tartean, eta aldatu egiten da tratamenduaren funtzioaren, laguntza motaren, gaixotasunaren eta halakoen arabera. Dena dela, osasun-sistemaren erabilerarekin lotuta dagoen aldagai baliodun bat adina da: hots, adinekoek gehiago eta sarriago erabiltzen dute osasun-sistema.

5. taulan ikus daiteke biztanle atzerritarrek EAEko osasun-gastu osoaren % 3,2 sortu zutela 2008an, eta % 4,3 2012an; beraz, lau urtean % 1,1 areagotu zen gastua.

Adin-tartean arabera analisiak xehetasun interesgarriak erakusten ditu. Hasteko eta behin, atzerritarren kolektiboak eragiten duen gastua nagusiki 0 eta 54 bitarteko adin-tartean kontzentratzen da. Adin-tarte horren barruan, biztanle atzerritarrek pisu handiagoa dute osasun-gastuan,

<sup>7</sup>Eranskinetako tauletan daude hezkuntza mailen eta ikastetxeen titulartasunaren arabera matrikulazio datuak.

<sup>8</sup>Kalkulua egiteko, kontuan hartu da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2011rako argitaraturiko adin-taldearen batez besteko datua.

osasan-gastu globalean baino. Hala ere, adin-tarte horren barruan ere badaude alde nabarmenak: 2012an, 18-34 urte arteko atzerriko herritarrek osasan-gastu osoaren % 15,3 eragin zuten.

5. taula. Atzerriko biztanleei EAEko osasan-sistemagatik egotz dakiekeen gastua. 2008-2012


Adin-tarteak	2008			2012			2008-2012		
	Atzeritarrak	Guztira	%	Atzeritarrak	Guztira	%	Atzeritarrak	Guztira	%
0-4	7.093.506	137.052.991	5,2	12.384.195	146.696.735	8,4	5.290.689	9.643.744	3,3
5-11	5.063.948	82.449.727	6,1	5.683.697	88.251.308	6,4	619.749	5.801.581	0,3
12-17	3.889.358	53.894.393	7,2	5.040.075	57.686.676	8,7	1.150.717	3.792.283	1,5
18-34	35.084.125	312.559.190	11,2	51.103.768	334.552.440	15,3	16.019.643	21.993.250	4,1
35-44	21.246.742	303.169.225	7,0	31.248.681	324.501.750	9,6	10.001.939	21.332.525	2,6
45-54	13.671.149	372.252.518	3,7	18.777.271	398.446.093	4,7	5.106.122	26.193.575	1,0
55-64	7.231.714	498.751.079	1,4	11.540.640	533.845.735	2,2	4.308.926	35.094.656	0,7
65-69	2.451.456	282.095.345	0,9	2.828.069	301.945.005	0,9	376.613	19.849.660	0,1
70-74	1.573.713	291.933.609	0,5	2.445.473	312.475.539	0,8	871.760	20.541.930	0,2
75-79	1.424.071	366.450.354	0,4	1.890.600	392.235.660	0,5	466.529	25.785.306	0,1
80-84	879.185	279.448.331	0,3	1.097.143	299.111.733	0,4	217.958	19.663.402	0,1
85+	807.763	196.103.664	0,4	672.248	209.902.512	0,3	-135.515	13.798.848	-0,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>100.416.729</b>	<b>3.176.160.426</b>	<b>3,2</b>	<b>144.711.859</b>	<b>3.399.651.186</b>	<b>4,3</b>	<b>44.295.130</b>	<b>223.490.760</b>	<b>1,1</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, Osasun Saila, INE. Egileek egina.


Gainera, bilakaerari erreparatuta, adin-tarte horrek izan zuen hazkunderik handiena 2008-2012 artean; zehazki, % 4,1. Demografiaren piramidearen oinarrian ere (0-5 urte), atzerriko kolektiboak pisu handiagoa du; zehazki, % 8,4 2012an. 2008az gerotik, adin-tarte horretan % 3,3 areagotu zen atzerriko biztanleek osasan-gastuan duten pisua. Horren arrazoi nagusia da aldatu egin dela atzeritarren kolektiboaren egitura demografikoa, batik bat adin-tarte horretako kideak baititu.

8. grafikoak kolektibo atzeritarraren eta biztanleria osoaren gastu-banaketa alderatzen du zifra absolutuen bidez, 2008-2012 aldirako. Jendeak, oro har, uste du atzeritarrek osasan-gastu handia eragiten duela; grafiko honek, baina, kontrakoa adierazten du.

8. grafikoa. Atzerriko biztanleei EAEko osasan-sistemagatik egotz dakiekeen gastuaren banaketa. 2008-2012



## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn



Iturria: Iturria: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, Osasun Saila, INE. Egileek egina.

Atzerriko biztanleek osasun-gastu txikia sortzen dute, eta gastu hori gazteetan kontzentratzen da batik bat; gazteek, beren egoera biologikoa dela eta, ez dute gastu handirik eragiten. Grafikoan garbi ikusten da biztanleria osoaren gastsua 55 urtetik gora pilatzen dela, eta adin-tarte horretako biztanle atzerritar oso gutxi dago. Esaterako, 65 urtetik gorako biztanle atzerritarrak ez dira biztanleria osoaren % 2ra iristen, eta bertakoak, berriz, biztanleria osoaren % 20 baino gehiago dira.

## Etxebizitza

Jarraian, etxebizitzan zenbateko gastua eragiten den aztertuko dugu. Ongizate-sistema honen kasuan, kalkulua egiteko, kontuan hartu da babes publikoko etxebizitzaren arloko inbertsioa. Eusko Jaurlaritzak sustatzen edo kudeatzen ditu zuzenean etxeok, Alokabideren (alokairua), Visasaren (jabetza) eta bertako Etxebizitza Sailaren inbertsio-atalaren bidez. Beraz, analisi honetatik kanpo utzi ditugu enpresa eta kooperatiba pribatuek sustatu eta kudeaturiko babes publikoko etxebizitzaren sustapen guztiak<sup>9</sup>.

6. taula. Atzerriko biztanleei eta biztanleria osoari EAEko etxebizitza-sistemagatik egotz dakiekeen gastua. 2008-2012

	2008			2012			2008-2012		
	Atzerritarrak	Guztira	%	Atzerritarrak	Guztira	%	Atzerritarrak	Guztira	%
Alokairua	8.273.593	58.677.964	14,1	28.980.353	124.915.313	23,2	20.706.760	66.237.349	9,1
Jabetza	9.744.851	360.920.424	2,7	3.578.519	91.756.901	3,9	-6.166.332	269.163.523	1,2
Etxebizitza Saila	4.335.094	100.816.133	4,3	6.627.714	73.641.271	9,0	2.292.621	-27.174.862	4,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>22.353.538</b>	<b>520.414.521</b>	<b>4,3</b>	<b>39.186.586</b>	<b>290.313.485</b>	<b>13,5</b>	<b>16.833.048</b>	<b>230.101.036</b>	<b>9,2</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Egileek egina.


6. taulako emaitzan ikus daitekeenez, 2008an biztanle atzerritarrek Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzaren arloko gastu osoaren % 4,3 eragin zuten. 2012an, gastu horrek % 13,5era egin zuen gora; hau da, lau urtean 9,2 puntu areagotu zen. Jabetza-erregimenaren araberako

<sup>9</sup>Eranskinean, esleipenei eta aurrekontu-partidei buruzko datuak dakartzaten taulak daude.

datuetan alde handiak ageri dira: 2008an, atzerritarren kolektiboak alokairu-gastuaren % 14,1 sortu zuen, eta jabetza-gastua, berriz, % 2,7koa baino ez zen. 2012an, alde hori are nabarmenago egin zen: % 9,1 egin zuen gora alokairu-erregimenak, eta, beraz, atzerriko biztanleek % 23,2ko gastua eragin zuten alor horretan. Jabetzaren gastuak ere gora egin zuen, baina askoz gutxiago; zehazki, % 1,2. Hortaz, kolektibo atzerritarrek % 3,9ko gastua sortu zuen 2012an jabetzako etxebizitzan esparruan.

9. grafikoak ukaitza-erregimenaren arabera bereizitako gastuaren banaketa erakusten du, eta banaketa horrek agerian uzten ditu atzerriko biztanleen eta biztanleria osoaren arteko aldeak; alde horiek, gainera, areagotu egin ziren 2012an, 2008arekin alderatuta. 2008an, biztanle atzerritarrek etxebizitzan eragiten zuten gastuaren % 43,6 jabetza-erregimenari zegokion; biztanleria osoaren kasuan, jabetzako gastua % 69,4 zen. Alokairuari dagokionez, urte horretan, atzerriko kolektiboak % 37ko gastua eragiten zuten, eta biztanleria osoak, berriz, % 11,3.

9. grafikoa. Atzerriko biztanleei eta biztanleria osoari EAEko etxebizitza-sistemagatik egotz dakiekeen gastuaren banaketa. 2008-2012



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Egileek egina.

2012an, bi kolektiboaren arteko aldeak areagotu egin ziren, alokairuaren pisua handitu egin zelako nagusiki. Atzerriko kolektiboek askoz ere gastu txikiagoa eragin zuten jabetza-erregimenean (% 9,1), eta askoz gastu handiagoa alokairuan (% 74). Biztanleria osoaren kasuan ere antzekoa da bilakaera: jabetzaren arloko gastua txikiagoa izan zen, % 31,6koa, eta alokairuarenak gora egin zuen, % 43ra arte.

## Zergen eta gizarte-kotizazioen bidezko diru-sarreraren analisia

Orain arte, zehatz-mehatz aztertu dugu atzerriko nazionalitatea duten herritarrei zenbateko gastua egotz dakiekeen ongizate-sistemak erabiltzeagatik. Atal honetan, berriz, banan-banan aztertuko ditugu diru-kutxa publikoetako diru-sarrerak osatzen dituzten zerga eta gizarte-kotizazio guztiak. Análisi xehatu honi esker, zehatzago jakingo dugu atzerriko herritarrek zenbateko eragin ekonomikoa izan duten zergetatik bildutako diruan.

### Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga (PFEZa)

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga, PFEZ, zerga pertsonala eta zuzena da, eta EAEn bizi diren pertsona fisikoek urte natural batean jaso duten errenta zergapetzen du. Zerga hau da herri-administrazioak finantzatzeko bide nagusietako bat, eta, EAEn kasuan, hiru lurralde historikoetako foru-aldundiek biltzen dute. Bestalde, zerga honek ekonomia formalaren barruan lortutako errentak zergapetzen ditu, hots, kontratu baten edo aitortutako jarduera ekonomiko baten bidez lortutako errentak. Hortaz, zerga honetatik kanpo gelditzen dira ezkutuko ekonomiaren esparruan jasotako errentak.

7. taulan ageri da kalkuluaren azken emaitza. Bertan ikusten denez, 2008an biztanle atzerritarrek 112 milioi euro baino zertxobait gehiago jarri zituzten diru-kutxa publikoetan PFEZaren bidez; alegia, PFEZaren bidez bildutako diru osoaren % 2,7. 2012an, ekarpen hori asko handitu zen: 201 milioi euroko diru-sarrerak ekarri zituzten, hau da, 2008an baino 88 milioi gehiago. 2012an, atzerriko biztanleek PFEZaren bidezko diru-sarreraren % 4,5 eragin zuten; hortaz, diru-sarrerak % 1,8 areagotu ziren 2008-2012 artean.

Bestalde, errenta-tarteen arabera emaitzek alde interesgarriak erakusten dituzte, eta argi ikusten dira biztanle atzerritarren eta biztanleria osoaren errenta mailaren arteko aldeak, bai eta atzerritarren kolektiboaren beraren barruko aldeak ere.

Termino erlatiboetan, 2008an atzerritarren diru-sarreraren ehunekoa guztizko diru-bilketa baino handiagoa zen errenta txikienetan; hain zuzen, % 8, urtean 13.200 baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten errentetan. Atzetik, errenta ertain altuak daude, urteko 44.401-54.000 euro artekoak, % 4,6rekin, eta gero, txikienak, 13.201-22.800 euro artekoak, % 4,1ekin. Errenta altuenen kasuan, urteko 66.001 eurotik gorago daudenen kasuan, ehunekoa % 3 zen; datu baxua, baina esanguratsua.

7. taula. Atzerriko herritarrei PFEZagatik egotzitako diru-sarrerak

	2008			2012			2008-2012		
	Atzerritarrek	Guztira	%	Atzerritarrek	Guztira	%	Atzerritarrek	Guztira	%
< 13.200	4.301.884	54.100.000	8,0	3.359.710	42.270.000	7,9	-942.174	-11.830.000	0,0
13.201-22.800	23.329.936	571.823.000	4,1	46.707.001	590.792.000	7,9	23.377.065	18.969.000	3,8
22.801-30.000	12.388.911	648.006.000	1,9	21.193.952	726.507.000	2,9	8.805.041	78.501.000	1,0
30.001-44.400	16.070.422	1.025.969.000	1,6	8.031.187	1.202.110.000	0,7	-8.039.235	176.141.000	-0,9
44.401-54.000	16.552.842	357.552.000	4,6	5.208.977	389.868.000	1,3	-11.343.865	32.316.000	-3,3
54.001-66.000	4.244.716	332.612.000	1,3	0	346.093.000	0,0	-4.244.716	13.481.000	-1,3
> 66.001	35.941.485	1.209.577.000	3,0	117.016.314	1.156.113.000	10,1	81.074.829	-53.464.000	7,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>112.830.196</b>	<b>4.199.639.000</b>	<b>2,7</b>	<b>201.517.141</b>	<b>4.453.753.000</b>	<b>4,5</b>	<b>88.686.945</b>	<b>254.114.000</b>	<b>1,8</b>

Iturria: PGDI eta Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa. Egileek egina.


2012an, atzerritarren artean errenta baxuenen eta errenta altuenen diru-bilketaren pisua areagotu zen, eta, aldi berean, errenta ertainek behera egin zuten nabarmen. Horrela, atzerritarren artean PFEZen bidezko zerga-ordainketaren egituraren polarizazioa gertatu zen. Hori horrela, 13.201-22.800 euro arteko errenten diru-bilketa 23 milioi areagotu zen (termino erlatiboetan, % 3,8ko areagotzea da 2008ari dagokionez diru-sarrera guztien pisuan); aldiz, 22.800-30.000 euro arteko errenten ekarpena 8 milioi baino gehiago areagotu zen. Aldi

berean, errenta altuenek igoera handia izan zuten, eta diru-bilketan 81 milioi euro areagotzea ekarri zuten. Horrek dakar urteko 66.001 euro baino gehiagoko errenten artean atzerriko herritarren diru-sarreretan atzeritarren pisua % 10ekoa izatea. Aitzitik, 30.000 eta 66.000 euro arteko errentak nabarmen jaitsi dira, hala termino absolutuetan nola termino erlatiboetan.

Datu horiek erakusten dute atzeritarrek askotariko errentak dituztela, bai eta gizarte-klasea atzeritarren jatorriarekin hertsiki lotuta dagoela ere. EAEn, badago gehiengoa ez den baina esanguratsua den talde bat: mendebaldeko herrialdeetatik datorrena –AEB edo Europar Batasuna–. Horiek enplegu kalifikatuetan lan egiten dute eta errenta maila altuak dituzte. Talde hori etorkin ekonomikoaren imajinarioarekin lotzen ez bada ere, EAEn bizi diren atzeritarren parte dira, eta, datuek adierazten duten moduan, ekarpen oso nabarmena egiten diete diru-kutxa publikoei.

10. grafikoak erakusten du atzeritarren errenta mailen ekarpenetako polarizazioak eragindako aldaketa hori. 2008an, ikusten da atzerriko herritarren errenta mailaren arabera banaketa homogeenagoa dela eta banaketa osoaren nolabaiteko antza duela. 2008an, atzeritarren PFEZaren arloko diru-sarreraren % 50 baino apur bat gehiago urteko 13.201-22.800 euro arteko errenta zutenen bidez (% 20,7) eta 66.001 euro baino gehiagoko errentak zituztenen bidez (% 31,9) egin zen. Guztizko diru-sarrerari dagokienez, ekarpen handiena egiten zuten errentak urteko 66.001 eurokoak baino gehiagokoak ziren (% 28,8) eta urteko 30.000 eta 44.400 euro artekoak zituztenak(% 24,4).

10. grafikoa. Atzerriko herritarrei PFEZagatik egotzitako diru-sarreraren banaketa



Iturria: PGDI eta Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa. Egileek egina.

2012an, atzerritarren artean polarizazio handia gertatu zen; 66.001 euro baino gehiagoko errenten ekarpena biziki handitu zen, eta atzerritarrak PFEZaren arloan egindako ekarpenaren % 58,1 irudikatzen iritsi ziren; aldi berean, 13.201-22.800 euro arteko errenten ekarpena ere handitu egin zen, eta ekarpenaren % 23,2 lortu zuten. Bestalde, 30.000 eta 66.000 euro arteko errentak maila oso baxuetara jaitsi ziren. Errenten ekarpen osoaren kasuan, errenta ertainen ekarpena handitu eta errenta altuen ekarpena txikiagotu egin zen.

Joera horiek erakusten dute krisiaren eraginak beheko eta ertain-beheko gizarte mailetan zeuden atzerritarren errenta maila murriztea ekarri duela; aldiz, eragin hori ez da nabaritu horrenbeste mendebaldeko eta industrializatutako herrialdeetatik datozen etorkin kalifikatuen artean. Bestalde, garrantzitsua da adieraztea krisiaren aurretik atzerritarren PFEZaren bidezko ekarpena 2008an oso antzekoa zela guztizko errentaren ekarpenaren banaketarekin, aldi desberdinak oinarri hartuta; beraz, atzerritarren talde batzuen integrazio sozioekonomikoaren prozesuaren adierazlea da hori. Prozesu hori, datuek erakusten duten moduan, eten egin du krisiak, eta areagotu egin dira kolektibo atzerritarren arteko polarizazioa eta polarizazioaren aldeak.

Hitz batez, datu horiek guztiek erakusten dute gizarte-desberdintasunak areagotu egin direla hala espainiarren eta atzerriko herritarren artean, arestian aipatu bezala, nola atzerritarren taldearen beraren barruan.

### Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)

Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) zeharkako zerga bat da, kontsumoa zergapetzen duena, eta, PFEZarekin batera, administrazio publikoaren finantzaketa-iturri nagusietako bat da. 8. taulak erakusten du atzerriko herritarrek egiten duten BEZaren bidezko ekarpen ekonomikoaren emaitza orokorra, bai eta biztanleria guztiarena ere. 2008an, kolektibo atzerritarrak EAEn egindako kontsumoaren bidezko ekarpenak 54 milioi euroko diru-sarrerak ekarri zizkien diru-kutxa publikoei, eta horrek zerga horren bidezko diru-sarrera guztien % 3 hartzen du. 2012an, ekarpena 29 milioi areagotu zen, eta horrek ekarri zuen atzerriko herritarrek 84 milioi euroko ekarpena egitea, hau da, diru-sarrera guztien % 3,6 BEZaren arloan. Igoera hori, batetik, talde horren kontsumoa areagotzeagatik gertatu zen, 2008-2012 urteen artean talde horretako biztanleak ugartzeagatik nagusiki, eta, bestetik, BEZ mota desberdinak igotzeagatik, kontsumoarekiko zerga-karga handiagoa izanik diru-bilketa areagotu baitzuten.

Atzerriko herritarren ekarpenaren ehunekoa guztiarekin alderatuz gero, ikusiko dugu 2012an komunikazioen arloko gastuak eta udal-tasen eta -zergen ordainketak zituztela ehuneko handienak guztiarekin alderatuta, biak ere % 5,4ko zenbatekoarekin diru-bilketa orokorrean. Ondoren, etxeko gastuek eta ibilgailuak erostek zuten garrantzi handiena termino erlatiboetan, % 4,7 eta % 4,6 ehunekoekin hurrenez hurren. Beste muturrean, komunitateko gastuak (% 1,6), aseguruak (% 1,8) eta etxeko konponketak (% 0,6) kontzeptuak ditugu.

Termino ebolutiboek dagokienez, ikusten dugu krisiak nahiz atzerriko herritarren kopurua areagotzeak 2008-2012 artean aldaketak eragin zituela kontsumo-ereduetan; hori diru-kutxa publikoetarako ekarpenean islatzen da, BEZaren bidez. Areagotze handienak gure gizartearen migrazio-proiektuaren finkapenarekin eta sustraitzearekin lotutako partidetan gertatu dira, iraunkortasuna, herritar kopuruaren igoera eta inbertsioa adierazten dituzten gastu moten bidez. Horrela, ikusten dugu atzerriko herritarren pisua udal-tasak eta -zergak ordaintzean % 2,6 igo dela, eta ibilgailuak erostekarekin lotutakoa % 2,4. Atzetik, etxeko mantentze-lanekin zerikusia



du ten gastuak daude (% 1,2), eta bidaia eta oporrena (%1,3). Azken kasu horretan, pentsatze koa da areagotzea ez dela azaltzen aisialdiaren arloan, familiakoak eta jatorrizko herrialdea bisitatze ko bidaien arloan baizik. Beste muturrean, ikusten dugu energiaren gastua murriztu egiten dela nabarmen (% 3,1). 2008an % 4,1 izan zen, eta orain, % 1, krisiaren eraginaren adierazle garrantzitsua.

8. taula. Atzerriko herritarrei BEZagatik egotzitako diru-sarrerak

	2008			2012			2008-2012		
	Atzeritarrak	Guztira	%	Atzeritarrak	Guztira	%	Atzeritarrak	Guztira	%
Etxea	7.189.589	208.890.782	3,4	9.494.307	203.886.468	4,7	2.304.718	-5.004.314	1,2
Komunitatea	877.158	70.223.911	1,2	1.897.819	120.591.461	1,6	1.020.661	50.367.550	0,3
Udal-tasak/-zergak	8.735.898	317.985.935	2,7	11.024.568	205.935.596	5,4	2.288.670	-112.050.339	2,6
Energia	3.934.333	96.153.729	4,1	374.580	38.800.333	1,0	-3.559.753	-57.353.396	-3,1
Komunikazioak	4.342.925	93.294.239	4,7	16.628.954	305.673.049	5,4	12.286.029	212.378.811	0,8
Hezkuntza	538.761	19.130.214	2,8	4.085.376	174.670.304	2,3	3.546.615	155.540.089	-0,5
Mendekotasuna	740.248	24.298.875	3,0	1.768.607	44.787.083	3,9	1.028.359	20.488.208	0,9
Garraioa	4.628.882	121.736.339	3,8	6.792.940	188.069.821	3,6	2.164.058	66.333.482	-0,2
Zerbitzu pertsonalak	3.475.273	89.688.299	3,9	3.753.197	121.278.411	3,1	277.924	31.590.112	-0,8
Aisialdiko eta kulturako jarduerak	6.153.523	183.515.176	3,4	7.922.046	283.584.990	2,8	1.768.523	100.069.813	-0,6
Jantziak eta oinetakoak	3.409.924	108.657.985	3,1	5.060.719	127.396.054	4,0	1.650.795	18.738.069	0,8
Osasuna	310.064	12.615.270	2,5	315.239	14.105.204	2,2	5.175	1.489.934	-0,2
Aseguruak	2.879.763	118.129.998	2,4	3.027.928	166.718.556	1,8	148.165	48.588.557	-0,6
Oporrak	3.550.784	114.130.602	3,1	7.191.621	161.740.399	4,4	3.640.837	47.609.798	1,3
Etxeko konponketak	546.441	87.727.856	0,6	634.614	105.154.150	0,6	88.173	17.426.294	0,0
Etxeko ekipamendua	1.577.405	62.266.858	2,5	-	-	-	-	-	-
Ibilgailua erostea	1.358.352	64.204.494	2,1	4.054.000	88.899.242	4,6	2.695.648	24.694.748	2,4
Guztira	54.249.323	1.792.650.563	3,0	84.026.516	2.351.291.120	3,6	29.777.193	558.640.557	0,5

Iturria: PGDI. Egileek egina.

9. taulak eta 11. eta 12. grafikoek diru-sarreraren banaketa erakusten dute, atzerriko herritarren eta biztanleria osoaren BEZaren kontzeptuen arabera Datu horiek garbi erakusten dituzte atzerriarren kolektiboaren eta gizarte orokorraren arteko kontsumo-ereduen aldeak eta antzekotasunak.

2008an, atzerriko herritarren BEZaren bidezko ekarpenak erakusten zuen talde horrek kontsumoaren zati handiena udal-tasa eta -zergetara (% 16,1), etxeko gastuetara (% 13,3) eta aisialdiko eta kulturako jardueretara (% 11,3) bideratzen zuela. Biztanleria osoarekin alderatuta, portzentaliki baliabideen kopuru handiagoa bideratzen zuen etxeko mantentze-lanekin, komunikazioarekin, garraioarekin, zerbitzu pertsonalekin eta aisialdiko eta kulturako jarduerekin lotutako gastuetara; aldiz, gainerako kontzeptuetan txikiagoa zen kontsumoa.

2012an aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren. BEZaren bidezko diru-sarrerak komunikazioetako gastuen bidez biziago ugartu ziren, eta kontzeptu horretan diru-sarreraren % 19,8 hartu zuten; jarraian, udal-tasak eta -zergak (% 13,1) eta etxeko gastuak (% 11,3) kontzeptuak agertzen ziren. Guztizko diru-sarreraren banaketarekin alderatuta, 2012an atzerriko herritarrek kontsumo handiagoa izan zuten komunikazioen, udal-tasen, etxeko gastuen, bidaien eta ibilgailu-erosketaren arloetan.


## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

9. taula. Atzerriko herritarrei BEZagatik egotzitako diru-sarrereren banaketa

	2008		2012	
	Atzeritarrak	Guztira	Atzeritarrak	Guztira
Etxea	13,3	11,7	11,3	8,7
Komunitatea	1,6	3,9	2,3	5,1
Udal-tasak/-zergak	16,1	17,7	13,1	8,8
Energia	7,3	5,4	0,4	1,7
Komunikazioak	8,0	5,2	19,8	13,0
Hezkuntza	1,0	1,1	4,9	7,4
Mendekotasuna	1,4	1,4	2,1	1,9
Garraioa	8,5	6,8	8,1	8,0
Zerbitzu pertsonalak	6,4	5,0	4,5	5,2
Aisialdiko eta kulturako jarduerak	11,3	10,2	9,4	12,1
Jantziak eta oinetakoak	6,3	6,1	6,0	5,4
Osasuna	0,6	0,7	0,4	0,6
Aseguruak	5,3	6,6	3,6	7,1
Oporrak	6,5	6,4	8,6	6,9
Etxeko konponketak	1,0	4,9	0,8	4,5
Etxeko ekipamendua	2,9	3,5	-	-
Ibilgailua erostea	2,5	3,6	4,8	3,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: PGDI. Egileek egina.

11. grafikoa. Atzerriko herritarrei BEZagatik egotzitako diru-sarrereren banaketa. 2008



Iturria: PGDI. Egileek egina.

12. grafikoa. Atzerriko herritarrei BEZagatik egotzitako diru-sarrereren banaketa. 2012



Iturria: PGDI. Egileek egina.

## Zerga bereziak

Zerga bereziak zeharkako zergak dira, eta hainbat produkturen kontsumoa zergapetzen dute, hala nola edari alkoholadunena, tabakoarena, garagardoarena, argindarrarena eta hidrokarburoena. Metodologiari buruzko atalean adierazi dugun moduan, zerga horien bidez atzerriko herritarrek diru-kutxa publikoei egiten dizkieten diru-sarrerak kalkulatzeko, hainbat zatidura aplikatu ditugu, produktu horien kontsumoaren maila kalkulatzeko aukera ematen dutenak. Ildo horretan, zerga horietako bakoitzerako bilketa-datu errealak zatidurekin biderkatzeak aukera ematen digu kalkulatzeko atzerriko herritarrek 2008an nahiz 2012an zenbateko diru-sarrerak ekarri zizkieten diru-kutxa publikoei.

10. taulan erakusten dira kalkuluaren emaitzak bi urteetarako, bai eta zer bilakaera izan duten ere tarte horretan. 2008an, EAEko atzerriko biztanleek zerga berezien bidez diru-kutxa publikoetara egindako diru-sarrerak 55 milioi eurotik gorakoak izan ziren; 2012an, zenbateko hori 59 milioi eurokoa baino gehiagokoa izan zen. Lau urte horietan, areagotzea 3,7 milioi eurokoa izan zen. Termino erlatiboetan, atzerriko herritarren pisua zerga berezien diru-bilketan % 4 da, diru-bilketa orokorrari dagokionez. Ehuneko hori egonkorra izan zen 2008. urtearen eta 2012. urtearen artean.

10. taula. Atzerriko herritarrei zerga bereziengatik egotzitako diru-sarrerak

	2008			2012			2008-2012		
	Atzeritarrak	Guztira	%	Atzeritarrak	Guztira	%	Atzeritarrak	Guztira	%
Alkohola	449.014	13.201.000	3,4	651.303	15.002.000	4,3	202.289	1.801.000	0,9
Tabakoa	17.034.496	356.923.000	4,8	15.251.823	353.723.000	4,3	-1.782.673	-3.200.000	-0,5
Garagardoa	189.864	5.582.000	3,4	224.887	5.180.000	4,3	35.023	-402.000	0,9
Argindarra	3.443.633	91.527.000	3,8	2.815.732	72.517.000	3,9	-627.901	-19.010.000	0,1
Hidrokarburoak	34.865.847	926.686.000	3,8	40.799.088	1.050.749.000	3,9	5.933.241	124.063.000	0,1
Guztira	55.982.854	1.393.919.000	4,0	59.742.832	1.497.171.000	4,0	3.759.978	103.252.000	0,0

*Iturria: PGDI, Familia Aurrekontuen Inkesta eta Euskadiko Zerga Koordinazioaren Organoa Egileek egina.*

Kontzeptu bakoitzerako emaitzak aztertuz gero termino erlatiboetan, ikusiko dugu atzerriko herritarren pisua desberdina dela zergetako bakoitzaren diru-bilketan. 2008an, diru-bilketa orokorraren pisua % 4 zen, tabakoarena % 4,8, argindarrarena eta hidrokarburoena %3,8, eta alkoholarena eta garagardoarena % 3,4. 2012an, ordea, zenbait aldaketa gertatu ziren: edari alkoholadunen eta garagardoaren pisua handitu egin zen eta % 4,3 izan zen, orokorraren % 4 baino gehiago; aldiz, tabakoaren pisuak % 0,5eko beherakada izan zuen. Argindarraren eta hidrokarburoen zergen bidezko diru-sarrei buruzko pisuak egonkorak izan ziren ia-ia.


Bestalde, termino absolutuetan, diru-bilketaren bilakaerak erakusten du diru-bilketaren areagotzea nagusiki hidrokarburoen bidez egin dela. Hain zuzen, diru-bilketa orokorra 124 milioi euro areagotu zuen, eta horietako 5,9 milioi atzerriko herritarrei zegozkien. Beste muturrean dago argindarraren bidezko diru-bilketa; 19 milioi euro galdu zituen, eta horietako 627 mila euro atzerriko biztanleei zegozkien.

13. grafikoan, kontzeptu bakoitzerako diru-bilketaren ehunekoaren banaketa ageri da, atzerriko herritarrei eta biztanleria osoari dagokienez. Hasteko, ikusten dugu atzerriko herritarren kasuan nahiz biztanle guztien kasuan zerga berezien bidezko diru-bilketaren oinarria, batik bat,

## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

hidrokarburoak eta tabakoa direla, eta atzetik argindarra. Bestalde, edari alkoholdunen eta garagardoaren pisua oso txikiak dira.

13. grafikoa. Atzerriko herritarrei zerga bereziengatik egotzitako diru-sarreraren banaketa



Iturria: PGDI, Familia Aurrekontuen Inkesta eta Euskadiko Zerga Koordinazioaren Organoa Egileek egina.

2008an, atzerriko herritarren kasuan, hidrokarburoak zerga berezien bidezko diru-sarrera guztien % 62,3 izan ziren; ostera, tabakoa % 30,4 eta argindarra % 6,2 izan ziren. Urte horretan bertan, herritar guztientzako hidrokarburoen pisua % 66,5 izan zen, eta tabakoa, berriz, % 25,6 izan zen. 2012an, hidrokarburoen pisua nabarmen handitu zen atzerriko herritarrentzat, eta zerga berezien bidezko diru-bilketaren % 68,3 izan zen; hortaz, ehuneko 6 puntu igo zen. Herritar guztien kasuan ere igo egin zen: % 70,2 izan zen. Aldiz, tabakoaren bidezko zerga berezien diru-bilketa jaitsi egin zen: atzerriko herritarren kasuan % 25,5era, eta herritar guztien kasuan % 23,6ra.

## Gizarte-kotizazioak

Gizarte-kotizazioak dira administrazio publikoen finantzaketa-bide nagusietako bat eta ongizate-sistemaren bideragarritasunaren zutabeetako bat. Gizarte-kotizazioen bidez, Gizarte Segurantzak pentsio-sistema finantzatzen du, bai eta kontribuzio gabeko prestazio ekonomiko desberdinak ere. 11. taulan jasota dago atzerriko herritarrei gizarte-kotizazioak direla-eta egotz dakiekeen diru-sarreraren emaitza.

11. taula. Atzerriko herritarrei gizarte-kotizazioengatik egotzitako diru-sarrerak

	2008			2012			2008-2012		
	Atzerritarrak	Guztira	%	Atzerritarrak	Guztira	%	Atzerritarrak	Guztira	%
Gizarte-kotizazioak	208.949.037	6.331.789.000	3,3	277.245.295	6.447.565.000	4,3	68.296.258	115.776.000	1,0

Iturria: PGDI eta Eustat. Egileek egina.

2008an, talde horrek Gizarte Segurantzari 208 milioi euro baino gehiagoko ekarpena egin zion, diru-bilketa guztiaren % 3,3, alegia. 2012an, diru-bilketa 227 milioi eurora igo zen; hortaz, 68 milioi euro areagotu zen lau urtean. 2012an, Gizarte Segurantzari EAetik egindako diru-sarreraren % 4,3 atzerriko herritarren ekarpena izan zen; hortaz, talde horren diru-bilketaren pisua % 1 igo zen termino erlatiboetan lau urtean.

Aintzat hartzen badugu EAEn kotizazioen bidezko diru-bilketa 115 milioi euro areagotu zela 2008-2012 artean, ikusiko dugu atzerriko herritarrek eragin zutela areagotze horren erdia baino gehiago. Areagotze horren arrazoi nagusietako batek zerikusia du aztertutako aldiaren atzerriko herritarrek Gizarte Segurantzari egindako afiliazio kopurua igo izanarekin. Izan ere, afiliazio kopuruaren igoerak aukera eman du Gizarte Segurantzari ekarpen handiagoa egiteko.

## Etxebizitza

Etxebizitzaren arloan ere, administrazio publikoak diru-sarrerak jaso ditu babes ofizialeko etxebizitzak merkaturatzearen bidez. Eusko Jaurlaritzak, Alokabideren bidez alokatzeko etxebizitza publikoaren kasuan, eta VISESAren bidez jabetzako etxebizitza publikoaren kasuan, etxebizitzaren alokairuko eta salmentako diru-sarrerak jaso ditu. Hain zuzen, etxebizitza horiek Eusko Jaurlaritzak eraikitzen eta kudeatzen ditu.

12. taula. Atzerriko herritarrei babes ofizialeko etxebizitzengatik egotzitako diru-sarrerak

	2008			2012			2008-2012	
	Atzerritarrak	Guztira	%	Atzerritarrak	Guztira	%	Atzerritarrak	Guztira
Alokairuaren arloko diru-sarrerak	2.049.824	14.537.756	14,1	5.583.476	24.066.709	23,2	3.533.653	9.528.953
Jabetzaren arloko diru-sarrerak	9.035.896	334.662.809	2,7	3.471.432	89.011.073	3,9	-5.564.464	-245.651.736
Guztira	11.085.719	349.200.565	3,2	9.054.908	113.077.782	8,0	-2.030.811	-236.122.783

Iturria: Biztanleen Udal Errolda, INE. Egileek egina.

12. taulan, ikusten dugu 2008an atzerriko herritarrek diru-kutxa publikoei 11 milioi euroko ekarpena egin zutela babes ofizialeko etxebizitzak erosteagatik eta alokatzeagatik. 2012an, zenbateko hori 9 milioi euro baino zertxobait gehiago izan zen; beraz, 2 milioi euro jaitsi zen lau urtean. Termino erlatiboetan, oster, atzerriko herritarren pisua areagotu egin zen. 2008an, talde horrenak ziren diru-sarreraren % 3,2; 2012an, berriz, ehuneko hori % 8ra igo zen.

Jabetza-erregimenak aintzat hartuz gero, ikusiko dugu alde handiak daudela atzerriko herritarren eta biztanleria osoaren taldeen artean. Atzerriko herritarrek nagusiki alokairu-erregimenean eskuratzen dute babes ofizialeko etxebizitza, eta jabetzako etxebizitza gutxiago izan ohi dituzte. 2008an, atzerriko herritarrek alokairu-erregimeneko diru-sarreraren % 14,1 sortu zuten, eta jabetza-erregimeneko % 2,7 soilik. 2012an, alokairuaren pisua areagotu egin zen nabarmen: diru-sarreraren % 23,2ra iritsi zen. Hau da, alokairu publikoaren arloan, Eusko Jaurlaritzak diru-sarreraren lau eurotik bat inguru atzerriko herritarrei egindako alokairuen bidez lortzen du. Jabetzaren kasuan, berriz, ehunekoa arinki igo zen, eta Eusko Jaurlaritzak eraikitako eta kudeatutako babes ofizialeko etxeen salmentaren ondoriozko diru-sarreraren % 3,9 hartzen du.



# 6

## Eragin demografikoa EAEn

Jarraian, eta gaia aldatuz, atal honetan alde batera utziko dugu atzerriko herritarren inpaktu ekonomikoa, eta inpaktu demografikoa izango dugu ardatz. Bi arlo horiek, pentsa daitekeen moduan, oso lotuta daude elkarrekin.

1980ko hamarkadaz geroztik, Euskadiko dinamika demografikoaren ezaugarri nagusietako bat biztanleria galtzea da. Beherakada demografiko horren arrazoia migrazio-saldo negatiboari eta hazkuntza begetatibo eskasari zor zaio; hain zuzen, azken hori negatiboa da bertako biztanleen artean ere. Dinamika demografiko horrek biztanleria pixkanaka zahartzea ekarri du, eta gizarte-eta demografia-errealitate hori euskal gizartearen erronka nagusietako bat bihurtu da epe ertainerako eta luzerako. Ildo horretan, eta adierazle demografikoek erakusten duten moduan, atzerrikoen immigrazioak irauli egin du dinamika demografiko negatibo hori, hein batean bederen.

### Biztanleriaren bilakaera

2001-2013 aldian, immigrazioak oso eragin positiboa izan du biztanleen kopuruaren bilakaeran. Atzerriko immigrazioak joera-aldaketa handia ekarri du: EAEk biztanleria galtzeari utzi dio, eta hazten hasi da. Horrela, 2001-2013 artean, atzerriko herritarrak iritsi direnez, EAEko biztanleak 90.204 gehiago dira (% 4,3ko areagotzea).

Hazkunde hori atzerriko immigrazioari zor zaio bakarrik; izan ere, bertako biztanleen datuek erakusten dute 49.256 pertsonako atzerakada dagoela aztertutako denbora-tartean. Gainera, kontuan hartzen badugu atzerrian jaiotako biztanleen kopurua 139.460 pertsonakoa dela eta horietako zati bat, estatistikoki hitz eginda, bertako herritarren parte dela, inpaktu hori are handiagoa izan da.

Ildo beretik, garrantzitsua da, x taulan agertzen den moduan, gero eta alde handiagoa dagoela atzerriko herritarren eta atzerriko jatorriko herritarren artean. 2013an, atzerriko herritarrak 148.877 ziren; aldiz, atzerrian jaiotako eta EAEn erroldatutako pertsonak 183.283 izan ziren. Ikusten dugunez, hortaz, 2013an EAEn 35.000 pertsona zeuden atzerrian jaiotakoak eta

## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

atzerriko nazionalitatea zutenak. Termino erlatiboetan, urte horretan atzerriko nazionalitatea zuten biztanleak herritar guztien % 6,8 ziren, eta atzeritar jatorriko herritarren ehunekoa, berriz, % 8,4 zen.

13. taula. Biztanleria guztiaren bilakaera, bertakoarena eta atzeritarrena, jaiotza-lekuaren eta nazionalitatearen arabera


	Guztira	Jaiotza-lekua		Nazionalitatea		Atzeritar biztanleen %	
		Bertakoa	Atzeritarra	Estatua	Atzeritarra	Atzerriko nazionalitatea	Atzerriko jatorria
2001	2.101.478	2.057.655	43.823	2.074.040	27.438	1,3	2,1
2002	2.108.281	2.052.413	55.868	2.069.873	38.408	1,8	2,6
2003	2.112.204	2.044.675	67.529	2.062.973	49.231	2,3	3,2
2004	2.115.279	2.037.073	78.206	2.056.113	59.166	2,8	3,7
2005	2.124.846	2.030.818	94.028	2.051.952	72.894	3,4	4,4
2006	2.133.684	2.025.590	108.094	2.048.142	85.542	4,0	5,1
2007	2.141.860	2.019.664	122.196	2.043.336	98.524	4,6	5,7
2008	2.157.112	2.014.628	142.484	2.039.775	117.337	5,4	6,6
2009	2.172.175	2.012.538	159.637	2.039.310	132.865	6,1	7,3
2010	2.178.339	2.010.957	167.382	2.038.970	139.369	6,4	7,7
2011	2.184.606	2.009.567	175.039	2.039.350	145.256	6,6	8,0
2012	2.193.093	2.009.321	183.772	2.041.199	151.894	6,9	8,4
2013	2.191.682	2.008.399	183.283	2.042.805	148.877	6,8	8,4
2001-2013	90.204	-49.256	139.460	-31.235	121.439	5,0	6,0

Iturria: Biztanleen Udal Errolda, INE. Egileek egina.

Termino ebolutiboetara dagokienez, 2001-2013 tartean, atzerriko nazionalitatea zuten biztanleen pisu demografikoa % 5,5 handitu zen, eta atzeritar jatorriko herritarrena, berriz, % 6,3. Pisu demografikoan izandako igoera hori bi faktoreri zor zaio: batetik, atzerriko herritarren migrazio-hazkunde bizia, eta, bestetik, bertako herritarren beherakada.

Bestalde, 14 grafikoak herritarren kopuruaren bilakaera erakusten du, bi aldira bereizita: 2001-2008 tartean, krisia baino lehen, eta 2009-2013 tartean, krisi ekonomiko betean.

14. grafikoa. Bertako biztanleriaren eta atzerriko biztanleriaren bilakaera jaiotza-lekuaren arabera



Biztanleen Udal Errolda, INE. Egileek egina.



Datuek argi eta garbi erakusten dute krisiak eragina izan duela migrazio-fluxuetan eta atzerriko immigrazioak eragina izan duela EAeko biztanleen kopuruan. 2001-2008 aldian, ongialdi ekonomikoan, biztanleen hazkuntza 55.634 pertsonakoa izan zen. Nolanahi ere, aldi horretan, atzerrian jaiotako biztanleen kopuruak 98.661 pertsonako igoera izan zuen; aldiz, bertako biztanleen kopuruak 49.256 pertsonako beherakada izan zuen. 2009-2013 artean, krisi ekonomiko betean, aldaketa handi bat izan zen: biztanle guztien kopuruak hazten jarraitu zuen, baina neurri txikiagoan, eta guztira 19.507 pertsonako hazkundera gertatu zen. Hala ere, bertako herritarren beherakada nabarmen murriztu zen, eta bertako 4.139 pertsona soilik galdu ziren; atzerriko nazionalitatea zuten biztanleen hazkundera ere murriztu egin zen, eta 23.649 pertsonako hazkundera izan zuten.

Datu horiek erakusten dute ongialdi ekonomikoko garaian EAeko bertako biztanleen galera askoz ere handiagoa zela, batik bat bertako biztanleen emigrazio handiagatik; galera hori, baina, geldiarazi egin zuen krisi ekonomikoak. Nolanahi ere, joera hori azaltzeko, ezin dugu baztertu atzerriko herritarren nazionalizazio-prozesua, azken urteetan bertako biztanleak areagotzea ekarri baitu. Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen kasuan, joera kontrakoa da: ongialdian pertsona gehiago erakarri ziren, eta krisi-garaian, berriz, hazkundera txikiagoa da nabarmen.

Hitz batez, biztanleen stockaren bilakaerari dagokionez, immigrazioaren inpaktua oso positiboa izan da, bi hamarkadako biztanle-galeraren joera etengabea eta kezkarria irauli baitu eta EAE hazkunde demografikoaren bidean jartzeko aukera eman baitu.

## Jaiotza-tasa eta jaiotza-tasa gordina

Euskadiren ezaugarri demografikoetako bat da jaiotza-tasa txikia duela: 1980ko hamarkadaz geroztik, tasa horrek behera egin du. Egoera hori oihartzun handia izaten hasi da egitura demografiko orokorrean, batik bat lan egiteko adinean dagoen biztanleen kopuruan.

Jaiotza-tasan, atzeritarren immigrazioaren eragina oso positiboa izan da. 2001-2012 artean, Euskadiko jaiotzen % 12,5 atzeritar biztanleenak izan ziren; zehazki, 30.000 jaiotza. 2012an, EAeko jaiotzen % 17,8k atzerriko nazionalitatea duen ama edota aita bat zuten.

Termino ebolutiboetan, ikusten dugu gutxienez atzerriko nazionalitatea duen pertsona bat duten bikoteen jaiotzen kopuruaren pisua etengabe areagotu zela 2009. urtera arte; urte horretan, talde horrek EAeko jaiotza guztien % 18,4 eragin zituen. Ehunekorik handiena krisi ekonomikoaren hasieran azaltzen da. Urte horretatik aurrera, ehuneko arinki jaitsi zen, eta berriro igo zen 2012an, jaiotza guztien % 17,8 hartuz. Ildo horretan, ikusten dugu jaiotzen kopuruan atzerriko nazionalitatea duten biztanleen pisua haien pisu demografikoa baino askoz ere handiagoa dela.

Jaiotzen zifra absolutuak aintzat hartuz gero, ikusiko dugu inpaktu positiboan aldi gakoa 2005. eta 2009. urteen artekoa izan zela, atzeritarrek 1.952 jaiotza izatetik 3.855 jaiotza izatera igaro baitziren. 2009. urtetik aurrera, jaiotzen kopurua urteko 3.500 jaiotzaren gainetik kokatu da.

14. taula. Jaiotzak, nazionalitate osoaren eta atzerriko aita edota amaren nazionaltasunaren arabera (EAE). 2001-2012

	Jaiotzak			
	Guztira	Atzeritarra	Bertakoa	%
2001	17.649	972	16.677	5,5
2002	18.134	1.146	16.988	6,3
2003	19.270	1.257	18.013	6,5
2004	19.574	1.339	18.235	6,8
2005	19.698	1.952	17.746	9,9
2006	20.026	2.219	17.807	11,1
2007	20.594	2.802	17.792	13,6
2008	21.310	3.688	17.622	17,3
2009	20.905	3.855	17.050	18,4
2010	21.170	3.553	17.617	16,8
2011	21.155	3.569	17.586	16,9
2012	20.533	3.651	16.882	17,8
2001-2012	240.018	30.003	210.015	12,5

Iturria: INE. Egileek egina.

Bertako herritarren kasuan, berriz, jaiotzen kopuruaren gailurra 2004an gertatu zen: 18.235 jaiotza izan ziren. Nolanahi ere, 2005az geroztik, urteko 18.000 jaiotza baino gutxiago izan ziren, eta 2012an 16.882 jaiotzara arte jaitsi zen kopurua. Zifra hori 2001-2002 aldikoaren antzekoa da.

Atzerriko herritarren jaiotza-tasa gordina<sup>10</sup>, bestalde, mila biztanleko 24 jaiotzakoa da; aldiz, bertako herritarren jaiotza-tasa mila biztanleko 8 jaiotzakoa da. Alde horien arrazoa da, batetik, atzeritarren artean jaiotza gehiago izatea, eta, bestetik, bi taldeen egitura demografikoen arteko aldea; termino erlatiboetan, askoz ere handiagoa da ugalketa-adinean dauden atzeritarren -emakumeak- kopurua.

15. taula. Jaiotza-tasa gordina (amaren eta aitaren nazionalitatearen arabera). 2001-2012

	Jaiotza-tasa gordina	Atzeritarren jaiotza-tasa	Bertakoen jaiotza-tasa	Aldea
2001	8,4	35,4	8,0	0,4
2002	8,6	29,8	8,2	0,4
2003	9,1	25,5	8,7	0,4
2004	9,3	22,6	8,9	0,4
2005	9,3	26,8	8,6	0,6
2006	9,4	25,9	8,7	0,7
2007	9,6	28,4	8,7	0,9
2008	9,9	31,4	8,6	1,2
2009	9,6	29,0	8,4	1,3
2010	9,7	25,5	8,6	1,1
2011	9,7	24,6	8,6	1,1
2012	9,4	24,0	8,3	1,1


Iturria: INE. Egileek egina.

<sup>10</sup>Aita edota ama atzeritarra dutenen jaiotzak hartu ditugu aintzat jaiotzen kopurua eta jaiotza-tasa kalkulatzeko.

2012an, immigrazioak EAeko jaiotza-tasa gordinean zuen inpaktua 1,1 puntu areagotu zen. Hain zuzen, EAeko tasa orokorraren eta bertako biztanleen arteko tasaren arteko aldea da; izan ere, bertako biztanleen tasa 8,3koa da, eta atzerritarrena, berriz, 9,4koa.

Bestalde, 2001ean, inpaktu positiboa 0,4 puntukoa zen, eta zifra horri egonkor eutsi zitzaion 2004ra arte. Urte horretatik aurrera, atzerriko herritarren jaiotza-tasak areagotu zuen EAeko guztizko jaiotza-tasa gordina, eta 2009an 1,3 puntu hazi zen. Urte horretan, atzerritarren tasa mila biztanleko 29 jaiotzakoa izan zen; ordea, bertako biztanleen artean, tasa hori 8,4 izan zen.

15 grafikoa. Jaiotza-tasa gordinaren bilakaera (amaren eta aitaren nazionalitatearen arabera). 2001-2012



Iturria: INE. Egileek egina.

Ondorioz, immigrazioak inpaktu oso positiboa dauka jaiotza-tasan; izan ere, gaur egun herritarren % 6,8 inguru izanda, Euskadiko jaiotzen % 21 eragiten ditu. Immigrazioari esker, jaiotza-tasa gordina 1,1 puntu hazi da, eta 2009an, 1,3 haztera iritsi zen. 2001-2012 bitartean, Euskadiko jaiotza guztien % 15 (30.000 jaiotza) immigrazioari esker gertatu ziren.

## Biztanleriaren bilakaera naturala

Arestian aipatu dugun moduan, 1980ko hamarkadatik EAeko biztanlerian gertatu zen beherakada migrazio-saldo negatibo bati baina biztanleriaren atzerakada natural bati ere zor zaio, hildakoen kopurua jaiotzen kopurua baino handiagoa izateagatik. Horri dagokionez, ikusten da 1980ko hamarkadan beherakada nabaria dagoela jaiotzen kopuruan.

Alde horretatik, aurreko aldagai demografikoen moduan, atzerriko immigrazioak inpaktu positiboa izan du bilakaera naturalean. Datuek argi eta garbi erakusten dute atzerriko biztanleak iristeak ahalbidetu duela saldo begetatibo positiboa izatea. 16. taulan ikusten dugunez, atzerriko herritarrik gabe, 2001-2012 aldiko saldo begetatiboa -18.917 pertsonakoa izango zatekeen, eta amaierako emaitza 9.621. Atzerriko immigrazioak 28.538 pertsonako ekarpena egin du, eta horrela, bertako biztanleen galera konpentsatu du; bertako herritarrek oraindik ere bilakaera negatiboa dute.


16. taulan eta 16. grafikoan ikusten den moduan, 2001-2012 aldian atzerriko herritarren saldo begetatiboa hazi egin zen 2009. urtera arte, eta ondoren, egonkortu egin zen 2012ra arte. Talde horrek 2001ean 893 pertsonako saldo begetatibo positiboa zuen, eta 2012an, berriz, 3.498 pertsonako saldo positiboa. Bertako herritarren kasuan, aldi horretan guztian negatiboa izan zen saldo begetatiboa. Gainera, joera beheranzkoa da argi eta garbi; dena dela, urte batzuetan nolabaiteko berreskuratzea gertatu zen, hala nola 2004an, 2006an eta 2010ean. Hala ere, datuek erakusten dute 2001ean bertako biztanleen saldo begetatibo negatiboa -1.331 pertsonakoa izan zela, eta 2012an, berriz, -3.246 pertsonakoa.

16. taula. Saldo begetatiboa Euskadin 2001-2012 aldian (aita eta ama atzerritarrak dituztenen jaiotzak)

	EAE		
	Guztira	Atzeritarra	Bertakoa
2001	-438	893	-1.331
2002	-493	1.065	-1.558
2003	-36	1.155	-1.191
2004	895	1.250	-355
2005	281	1.848	-1.567
2006	1.519	2.097	-578
2007	1.343	2.667	-1.324
2008	1.877	3.555	-1.678
2009	1.291	3.696	-2.405
2010	1.807	3.379	-1.572
2011	1.323	3.435	-2.112
2012	252	3.498	-3.246

Iturria: INE. Egileek egina.

16. grafikoa. Saldo begetatiboaren bilakaera amaren eta aitaren nazionalitatearen arabera. 2001-2012



Iturria: INE. Egileek egina.

Zifra orokorrak aintzat hartuz gero, EAEk berreskuratu egin du saldo begetatibo positiboa 2004az geroztik, atzerriko herritarrei esker bakarrik. Talde horrek eusten dio saldoari zifra positiboetan, eta bertako biztanleen galera natural gero eta handiagoa konpentsatzen du.

Ondorioz, immigrazioak eragin oso positiboa izan du biztanleen bilakaera naturalean, joera negatibo bat irauli baitu. Aldi berean, gainera, adierazle ona da atzerriko herritarrek gizartearen ugalketa-prozesu naturalari egiten dioten ekarpena neurtzeko, horrek berekin dituen errotze sozialeko inplikazio guztiekin.

## Zahartze-indizea eta mendekotasun orokorraren tasa

Gure egitura demografikoaren zahartze-prozesuan, immigrazioak inpaktu positiboa izan du. Immigrazioak gaztetu egin du egitura demografikoa, eta, horri esker, 2001-2013 artean Euskadiko zahartze-indizea puntu bat soilik areagotu da. Kalkuluen arabera, immigrazio gabe, aldi horretan bertan 10 puntu igoko zatekeen zahartze-indizea. Beraz, immigrazioak moteldu egin du Euskadiko egitura demografikoaren zahartze-prozesua, modu argian eta agerikoan.

Euskadiko bilakaera demografikoaren ondorio nagusietako bat da Mendekotasun Orokorraren Tasa areagotzea. Adierazle horrek alderatu egiten du lan egiteko adinean dagoen eta ez dagoen biztanleria. Zahartzeak eta jaiotza-tasa baxuak eragiten dute adierazle hori areagotzea, hau da, mendeko biztanleen ehunekoa areagotzea.

Emaitzek erakusten dute inpaktu positiboa dagoela mendekotasun orokorraren tasan; immigrazioak gaztetzeari eta jaiotza-tasa igotzeari esker, mendekotasun-tasa ez da hain bizi areagotu. 2001-2013 aldian, biztanleria osoaren mendekotasun-tasa 9,7 puntu handitu zen, bertako biztanleena 12,7, eta atzerriko biztanleena 1,3. Immigrazioaren inpaktuak 2,6 puntu murriztu zuen mendekotasun-tasa 2001-2013 artean.

Immigrazioaren inpaktu positibo hori bizkortu egin zen 2009. eta 2013. urteen artean; aldi horretan, immigrazioak ahalbidetu zuen mendekotasun-tasa 2 puntu baino gehiago murriztea, eta 2012an 3 puntura iritsi zen.

17. taula. Zahartze-indizearen bilakaera.  
2001-2013

	Zahartze-indizea			Aldea (inpaktua)
	Guztira	Bertakoa	Atzeritarra	
2001	137,1	138,4	38,0	-1,3
2002	140,9	143,0	29,2	-2,1
2003	142,8	145,8	24,1	-3,0
2004	142,4	146,3	19,7	-3,9
2005	141,1	145,9	18,1	-4,8
2006	140,7	146,4	16,0	-5,7
2007	139,2	146,1	13,0	-6,9
2008	137,6	145,7	12,2	-8,0
2009	137,2	146,0	11,9	-8,8
2010	137,1	146,4	11,7	-9,3
2011	137,2	147,0	11,4	-9,8
2012	137,1	147,4	11,4	-10,2
2013	138,1	148,5	11,5	-10,3
2001-2013	1,0	10,0	-26,4	

Iturria: INE. Egileek egina

18. taula. Mendekotasun orokorraren tasa  
Euskadin. 2001-2013

	Mendekotasun-tasa			Aldea (inpaktua)
	Guztira	Bertakoa	Atzeritarra	
2001	43,8	44,2	20,9	-0,4
2002	44,4	44,9	20,3	-0,5
2003	44,7	45,4	19,9	-0,7
2004	45,0	45,9	20,3	-0,9
2005	45,2	46,3	20,0	-1,1
2006	46,1	47,4	20,0	-1,3
2007	46,8	48,3	20,4	-1,6
2008	47,4	49,3	20,2	-1,9
2009	48,4	50,7	19,8	-2,3
2010	49,6	52,1	20,3	-2,5
2011	51,0	53,7	20,8	-2,7
2012	52,2	55,2	21,2	-3,0
2013	53,5	56,5	22,2	-2,9
2001-2013	9,7	12,3	1,3	-2,6

Iturria: INE. Egileek egina

## Biztanleria, adin-taldean arabera

Biztanleria adin-taldean arabera banatuta, gizartearen egitura demografikoa ikus daiteke. Egitura hori da aztertu ditugun adierazleen emaitzen isla. Euskal gizartearen banaketa demografikoa argi eta garbi erakusten ditu defizit demografikoa; horiek oinarri estua, erdigune zabala eta goialde gero eta handiagoa duen biztanleria-piramide batean islatzen dira.

19. taula. Bertako eta atzerriko biztanleen banaketa, aitaren edota amaren jaioterriaren arabera eta adin-taldean arabera. 2011


	Estatuan jaiotako aita/ama	Atzerrian jaiotako aita edota ama
0-4	88.560	19.130
5-9	86.465	15.225
10-14	77.650	13.330
15-19	72.375	13.130
20-24	81.975	14.790
25-29	105.800	20.045
30-34	142.015	24.170
35-39	162.535	21.545
40-44	157.820	17.865
45-49	161.715	12.255
50-54	154.955	9.315
55-59	136.215	6.925
60-64	128.460	4.450
65-69	113.285	3.130
70-74	85.765	2.320
75-79	93.735	1.505
80-84	69.125	875
85-89	37.455	680
90-94	13.115	320
95-99	2.905	65
100 edo gehiago	270	0
<b>Guztira</b>	<b>1.972.180</b>	<b>201.085</b>

Iturria: INE. Egileek egina.

Immigrazioaren inpaktua oso positiboa izan da, Euskadira iritsi ziren immigranteak lan egiteko adinean iritsi baitira batik bat. Aldi berean, jaiotza-tasa handiagoak aukera eman du adin-talde gazteenak areagotzeko.

Immigrazioak populazioa ekarri du egitura demografikoa konpentsazio handiena behar duen adin-taldeetan, hau da, lan egiteko adinean dauden biztanleetan eta gazteetan. Gainera, aldi berean, ez du areagotu adineko biztanleen kopurua, eta, horrela, gaztetzeko-prozesua bizitu du.

17. grafikoa. Bertako eta atzerriko biztanleen banaketaren piramide-inpaktua, aitaren edota amaren jaioterriaren arabera eta adin-taldearen arabera. 2011



Iturria: INE. Egileek egina.

## Migrazio-saldoa

Migrazio-saldoaren adierazleak biztanleriaren mugimenduak neurtzen ditu, biztanleriaren egoitza-aldaketetan oinarrituta. 1970eko hamarkadaren amaierako eta 1980ko hamarkadaren hasierako industria-krisiaz geroztik, Euskadik biztanleria galdu du atzerriko immigranteak iritsi arte, migrazio-saldo negatiboa dela eta.

20. taula. Bertako biztanleen eta atzerriko biztanleen migrazioen bilakaera Euskadin (barneko saldoa, kanpoko saldoa eta guztizkoa). 2001-2013

	Guztira			Bertakoa			Atzerrikoa		
	Barneko s.	Kanpoko s.	Sal. guztira	Barneko s.	Kanpoko s.	Sal. guztira	Barneko s.	Kanpoko s.	Sal. guztira
2001	-3.866	10.009	6.143	-4.352	830	-3.522	486	9.179	9.665
2002	-3.549	9.025	5.476	-5.177	-48	-5.225	1.628	9.073	10.701
2003	-2.922	10.095	7.173	-5.034	515	-4.519	2.112	9.580	11.692
2004	-3.590	11.621	8.031	-5.601	539	-5.062	2.011	11.082	13.093
2005	-3.707	13.833	10.126	-5.034	351	-4.683	1.327	13.482	14.809
2006	-4.843	16.788	11.945	-5.925	0	-5.925	1.082	16.788	17.870
2007	-3.809	17.794	13.985	-5.623	-434	-6.057	1.814	18.228	20.042
2008	462	14.222	14.684	-3.408	-594	-4.002	3.870	14.816	18.686
2009	1.869	5.686	7.555	-2.097	-630	-2.727	3.966	6.316	10.282
2010	2.157	3.729	5.886	-2.165	-521	-2.686	4.322	4.250	8.572
2011	4.780	4.788	9.568	-22	-875	-897	4.802	5.663	10.465
2012	3.976	-1.688	2.288	1.483	-732	751	2.493	-956	1.537
2013	3.692	-2.950	742	639	-1.094	-455	3.053	-1.856	1.197

Iturria: INE. Egileek egina.

## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

18. grafikoa. Bertako biztanleen eta atzerriko biztanleen migrazioen bilakaera Euskadin (barneko saldoa, kanpoko saldoa eta guztizkoa). 2001-2013



Iturria: INE. Egileek egina.

Immigrazioaren fenomenoak inpaktu positiboa izan du: migrazio-saldo negatiboa irauli eta positibo bihurtu du. 2001-2013 aldian, migrazio-saldoa positiboa izan da (103.602 pertsona gehiago). Datu positibo hori atzerriko biztanleei esker gertatu da bakarrik. Aldi berean, bertako biztanleriak -45.009 pertsonako saldo negatiboa izan zuen, eta ez da are handiagoa izan atzerriko biztanleen nazionalizazio-prozesuari esker; aldiz, atzerriko biztanleek 148.611 pertsonako saldo positiboa daukate.

Hortaz, atzerriko immigrazioak biztanleriaren galdera moteldu du migrazioari esker, eta biztanleria areagotzea lortu du, termino absolutuetan.



# 7

## Laburpena eta ondorioak

Txostenaren azken atal honetan, egin dugun ikerketaren emaitza eta ondorio nagusiak laburtzen ahaleginduko gara. Horretarako, hasteko, inpaktu ekonomikoarekin lotutako alderdiak izango ditugu hizpide, eta, ondoren, euskal gizarteari dagokionez atzerriko biztanleen inpaktu demografikoa aztertuko dugu.

Lehenengo eta behin, azpimarratu behar da immigrazioaren inpaktu ekonomikoaren amaierako saldoa positiboa dela bai 2008an, bai 2012an. Alegia, bi urteotarako diru-sarrerak kolektibo horretan egiten den gastutik gorakoak dira. 2008rako saldoa 71 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta 2012an 38 milioikoa. Bi kasu horietan, saldoa positiboa da, baina azpimarratu behar da, halaber, krisiaren inpaktua antzematen dela; izan ere, saldo horrek behera egin du, 33 milioi euro inguru.

2008rako atzerritarren gastua ia 372 milioi eurokoa izan zen, alegia, gastu osoaren % 5, EAEn zeukan gastu demografikoaren oso antzekoa -% 5,4-. Partiden arabera, atzerriko nazionalitatea duten herritarrentzako gasturik handiena hezkuntzako da, ia 131 milioi eurokoa. Termino erlatiboetan, ordea, prestazioei eta gizarte-zerbitzuei zegokiena zen; izan ere, gastu hori guztizkoaren % 7 zen, hezkuntzako % 6,3ren aldean. Hezkuntzari dagokion gastua partida guztietako txikiena da, eremu horretako gastuaren guztizkoaren % 3,2koa.

2012an, gastuak gora egin zuen eta 593 milioikoa izan zen, urte horretako gastu osoaren % 7,4 –atzerritarren ehunekoa % 6,9koa da–. Urte horretako partidarik esanguratsuena prestazio ekonomikoari eta gizarte-zerbitzuei buruzkoa da; 236 milioi dira, ia atzerritarren gastu osoaren % 40 eta eremu horretako gastuaren % 11,2. Termino erlatiboetan, etxebizitzaren gastua da une horretan esanguratsuena, eremu horretako guztizkoaren % 13,5ekin. Hala ere, azpimarratu behar da zenbatekoa, oro har, gainerako partidetakoa baino nabarmenki txikiagoa dela eta ehuneko hori, zati handi batean, etxebizitzaren merkatu publikoan izandako aldaketan ondorioa dela –erosketako etxebizitzaren gastuaren beherakada nabarmena eta alokairuko gastuaren gorakada moderatua–.

Datu horiek, beraz, adierazten digute atzerriko nazionalitatea duen kolektiboan gastuan gorakada handia gertatu dela krisi ekonomikoaren ondorioz, eta gizarte-zerbitzuetako eta prestazio ekonomikoen edo etxebizitzaren gastuaren gorakadan islatzen dela. Hala ere, ezin

dugu alde batera utzi aldi horretan gertatu den atzerritarren gorakada; 2008an 117.337 pertsona ziren, eta 2012an, berriz, 151.894. Gorakada horrek, neurri handiagoan, hezkuntzan edo osasunean gertatzen diren gorakadak azaltzen ditu.

Diru-sarrerak 443 milioi eurokoak izan ziren 2008. urterako, alegia, EAEko zergen gizarte-kotizazioen bidezko diru-sarrera guztien % 3,3. Partiden arabera, diru-sarrera nagusia gizarte-kotizazioena izan zen: ia 209 milioi eurokoa. Balio erlatiboetan, diru-sarreraren iturri nagusia BEZa izan zen; atzerriko nazionalitatea duten herritarrentzako guztizkoaren % 4,4.

2012ko datuak aztertzen baditugu, ikusiko dugu zenbatekoa 631 milioikoa dela eta, beraz, atzeraldi ekonomikoa bada ere, EAEn atzerriko nazionalitatea duten herritarrek egindako diru-sarreraren ekarpenak 188 milioi egin duela gora. Kasu horretan, gizarte-kotizazioak dira oraindik ere diru-sarrerarik garrantzitsuena -277 milioi-, baina PFEZaren bidezko diru-sarrerak nabarmen egin zuten gora, eta 201 milioikoak izan ziren. Urrunago daude beste atal batzuk: besteak beste, BEZa, zerga bereziak eta etxebizitza publikoaren bidezko diru-sarrerak.

Nahiz eta hasiera batean diru-sarreraren gorakada harrigarria izan, bilakaera koherentea da eta zenbait faktoretan oinarrituta uler daiteke. Lehenengo eta behin, 2008tik 2012ra bitarteko aldiak, atzerriko nazionalitatea duten herritarrek gorakada hori izan zuten. Era berean, azpimarratu behar da aldi horretan erregulartasunean gorakada handia gertatu zela atzerriko herritarren artean; logikoa denez, horrek lan-kontratua izateko aukera dakar, eta, horrenbestez, gizarte-kotizazioak eta PFEZa ordaintzeko aukera ere bai. Hori horrela, pentsa daiteke Euskadikoa bezalako eredu sozioekonomikoak, non ezkutuko ekonomiak beste autonomia-erkidego batzuetan baino pisu gutxiago duen, bi partida horien bidezko diru-sarrerak handiagoak izatea ahalbidetzen duela, ikus daitekeenez.

Era berean, nabarmendu nahi dugu Euskadin babes handiko eta zabaleko diru-sarreraren berme-politikaren aldeko apustuak -eta gastuak- dakarrela egoera ahulenak dituzten pertsonen arteko kontsumoak beste leku batzuetan adina ez jaitea eta kontsumoari eusteak zergetan eragina izatea, besteak beste, BEZean edo zerga berezietan, atzeraldi ekonomikoan gora egiten dutenetan.

Atzerriko biztanleen inpaktu ekonomikoa alde batera utzita eta inpaktu demografikora igarota, atzerriko biztanleen inpaktu argia duten adierazle ugari azpimarra daitezke. Ildo horretan, ezin dugu alde batera utzi defizit demografikoa dela euskal gizarteak epe ertainean eta luzean gainditu beharreko erronketako bat. Hainbat ikerketa eta txosten akademikorik zein ofizialek agerian utzi dute biztanleriaren jaiotza kopuru txikia eta etengabeko zahartzea desorekatzen ari direla Euskadiko demografia-egitura. Arazo hori mendebaldeko gizarte gehienek badute ere, Euskadiren kasuan are biziago agertzen da.

2001-2013 urteetako Euskadiko demografia-adierazleak xehetasunez aztertuta, ondoriozta daiteke demografiaren ikuspegitik immigrazioaren eragina positiboa izan dela alderdi guztietan. Jarraian, inpaktu hori zehaztuko dugu adierazle adierazle, eta haien efektu nagusiak azpimarratuko ditugu:

- Biztanleriaren kopurua haztea. 1980ko hamarkadatik, Euskadiko biztanleriak beheranzko joera izan du, baina, atzerritik iritsitako etorkinei esker, joera hori gelditu ahal izan da. Immigrazioak bertako biztanleriaren galera konpentsatu du (galera hori oraindik ere geratzen ari da), eta biztanleriak gora egitea ahalbidetu du (Euskadin ez da gorakadarik gertatu 1980ko hamarkadatik).

- Jaiotzen gorakada. Immigrazioari esker, jaiotza-tasa gordina 0,7 hazi da, eta 2009an 1,3 hazi zen. 2001-2012 bitartean, Euskadiko jaiotza guztien % 15 (30.000 jaiotza) immigrazioari esker gertatzen dira.
- Mendekotasun-tasaren beherakada. Atzeritik iritsitako biztanleek demografiari egin dioten ekarpenak demografiaren egitura gaztetu du. Horren ondorioetako bat da mendekotasun-tasa murriztu egin dela. Gaur egungo tasa 9,7koa da; etorkinik gabe, tasa hori 12,3koa izango zatekeen. Hala, immigrazioari esker, mendekotasun-tasa 2,6 puntu jaitsi da.
- Zahartzea. Euskal demografiaren egitura progresiboki ari zen zahartzen; joera hori moteldu egin da immigrazioaren eraginez. 2001-2013 artean, zahartze-tasa puntu 1 besterik ez zen igo, eta atzerritarrik egon izan ez balitz, berriz, 10 puntu igoko zatekeen.
- Hazkunde naturala. Jaiotzen eta heriotzen arteko aldea aztertuz gero, ikus daiteke Euskadiko hazkunde naturala biztanle atzerritarrek egindako ekarpen demografikoaren ondorioa dela. 2001-2013 artean, gurean biztanle atzerritarrik egon izan ez balitz, bilakaera naturala negatiboa izango zatekeen (-18.917 pertsona); alabaina, kolektibo horrek Euskadin jaiotzei eman dien bultzadari esker, saldoa positiboa izan da (9.621 pertsona).
- Migrazio-saldoa. Migrazio-saldo negatiboak eragin du gehienbat Euskadiko biztanle kopuruaren beherakada. Atzerriko immigrazioak lehengoratu egin du egoera hori, migrazio-saldoa positibo bihurtuz. 2001etik 2013ra, Euskadik 103.602 pertsona irabazi zituen, atzerritarren etorrerari esker. Urte horietan, -45.009 pertsonakoa izan zen bertako biztanleen galera.

Arlo ekonomikoan nahiz arlo demografikoan eman ditugun datu horiek adierazten dute immigrazioaren eta atzerritarren kolektiboaren inpaktua positiboa izan dela ikerketa honetan aztertutako alderdietan. Bestela esanda, atzerritar jatorriko immigrazioak onura garbia ekarri du alderdi ekonomikoan Euskadirako, eta, aldi berean, interes demografiko ugari eskaintzen ditu epe ertainera eta luzera begira, eta horiek gure gizartean biztanleria aktiboa eta landuna edukitzea ekar dezakete; beraz, gaur egun ditugun ongizate-kotei eta gizartea babesteko sistemari eustea.

Aurrekoarekin lotuta, txosten honek ematen dituen zifrek gezurtatu egiten dute eta ez dute berresten gure gizartean gutxi edo gehiago errotuta dagoen tesi hau: atzerritar jatorriko biztanleek ongizate-sistemaren bidez ematen dutena baino gehiago jasotzen dutela. Izan ere, datuek aurkakoa adierazten dute, baita krisiaren eta atzeraldi ekonomikoaren garaian ere.



## Bibliografía

- Arriola, J., Gómez, C., & Andrés, X. (2008). *Impacto económico de la inmigración extracomunitaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Borjas, G. (1994). The economic consequences of immigrations. *Journal of Economic Literature*, 1667-1717.
- Conde-Ruiz, J., Garía, J., & Navarro, M. (2008). *Inmigración y crecimiento regional en España*. Fedea Economía Aplikatuko Ikerketetarako Fundazioa.
- De Arce, R. (2010). Impacto económico de la inmigración en España, 2000-2009: Antes y después de la crisis. *ICE* (854), 23-35.
- Ekberg, J. (2006). *Immigration to the Welfare State. Is it a Burden or a Contribution? The Case of Sweden*. AMID Working Paper Series 48/2006.
- García, J., Osuna, V., & Varela, G. (2006). La inmigración y su efecto en las finanzas públicas andaluzas. *Revista de Economía Aplicada*, 11 (42), 101-133.
- Gordenau, D. (2012). *El papel de la inmigración en la economía española*. Finantza Dibulgazioaren Behatokia.
- Huddle, D. (1993). *The cost of immigration*. Rice University.
- Ikuspegi. (2015). *Barómetro 2014. Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Jaén, M., & Piedra, L. (2010). La fiscalidad de la inmigración en Andalucía. *Revista de Estudios Regionales* (89), 141-182.
- Madrid, C. d. (2006). *Estudio sobre el impacto macroeconómico de la inmigración en la Comunidad de Madrid*. Madrid: Madrilgo Erkidegoa.
- Moreno, F., & Bruquetas, M. (2011). *Inmigración y estado de bienestar en España*. Barcelona: "La Caixa" Gizarte Ekintza.
- Passel, J., & Clark, R. (1994). *How much do immigrants really cost? A reappraisal of Huddle's 'The cost of immigrants'*. Urban Institute Working Paper.
- Sánchez, A., Blanca, S., & Lázaro, A. (2009). El saldo fiscal-social de la inmigración en Aragón. *XVI Encuentros de Economía Pública*. Granada.

Sebastian, M. (2006). *Inmigración y economía española: 1996-2006*. Madril: Gobernuko Presidentearen Ekonomia Bulegoa.

Sinn et al., H. (2001). *EU-Erweiterung und Arbeitskräftemigration. Wege zu einer schrittweisen Annäherung der Arbeitsmärkte. Ifo Beiträge zur Wirtschaftsforschung 2*. München: Ifo-Institut.

Ulrich, R. (1994). The impact of foreigners on the public purse. S. Spencer, *Immigration as an economic asset. The German experience*. (65-91 or.). toke-on-Trent: IPPR/Trentham Books.

Wadensjö, E., & Gerdes, C. Inmigrations and the public sector in Denmark and Germany. T. Tanaes, & F. Zimmerman, *Migrants, Work and the Welfare State*. Esbjerg: University Press of Southern Denmark.

# Eranskina I - Metodologia

Jarraian azalduko ditugu, alde batetik, gutxi gorabeherako zenbatekoak kalkulatzeko erabili den metodologia, eta, bestetik, analisiaren alderdi bakoitzerako erabilitako informazio-iturriak.

## Diru-laguntzak eta gizarte-zerbitzuak

Atzerriko nazionalitatea duten herritarrei diru-laguntzak eta gizarte-zerbitzuak erabiltzeagatik egotz dakiekeen gastua balioztatzeke, bi kontzeptu hauen arteko batura egin da:

$$GPES\text{Sext} = GPE\text{ext} + GSSMyD\text{ext}$$

*Non:*

*GPES\text{Sext} = Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei prestazio ekonomikoengatik eta gizarte-zerbitzuengatik egotz dakiekeen gastua*

*GPE\text{ext} = Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei DSBEngatik eta beste gizarte-laguntza batzuen egotz dakiekeen gastua*

*GSSMyD = Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei gizarte-zerbitzuengatik, adineko pertsonengatik eta mendekotasunarengatik egotz dakiekeen gastua*

DSBEren eta beste gizarte-laguntza batzuen gastua kalkulatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren estatistikak erabili dira. Kalkulu hori 2008. eta 2012. urteetarako egin da. Inkesta horretan, nazionalitatearen arabera aztertu dira diru-sarreraren aldagaiak DSBEren eta beste gizarte-laguntza batzuen arabera, Gizarte Segurantzaren langabeziagatik prestazioak barne, baina ez dira kontuan hartu pentsioen arloko diru-sarrerak:

$$GPE\text{ext} = \sum (RGI\text{ext} + OAS\text{ext})$$

*Non:*

*RGI\text{ext} = Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei egotz dakiekeen Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekoa*

*OAS\text{ext} = Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei egotz dakiekeen beste gizarte-laguntza batzuen zenbatekoa*

Adinekoentzako eta mendeko pertsonentzako gizarte-zerbitzuen gastua kalkulatzeko, atzerriko kolektiboari egotz dakiekeen gastuaren zatidura aplikatu zaio gastu errearen aurrekontuari. Kasu honetan, 2010. urterako soilik egin ahal izan da kalkulua, urte horretarako zatidura kalkulatzeko datuak baino ez daudelako; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Premiei buruzko Inkesta hartzen du oinarritzat, 2010ean egina. Hortaz, 2008an nahiz 2012an urte horri dagokion partida ekonomikoa berbera da bi urteetarako: 2010.

$$GSSPM\text{yD} = \sum (PSPM \times CM\text{ext}) + \sum (PSAD \times CD\text{ext})$$

*Non:*

*GSSMyD = Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei gizarte-zerbitzuengatik, adineko pertsonengatik eta mendekotasunarengatik egotz dakiekeen gastua*

*PSPM : Adineko pertsonentzako zerbitzuetarako aurrekontua*

*CM\text{ext} : Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen adineko pertsonentzako zerbitzuen erabileraren zatidura*

*PSAD: Mendekotasunari laguntzeko zerbitzuetarako aurrekontua*

*CD\text{ext}: Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen mendekotasunari laguntzeko zerbitzuen erabileraren zatidura*

Adinekoentzako eta mendekotasunerako zerbitzuen aurrekontuen barruan sartu dira arlo hauetarako partidak: adineko pertsonen arreta eskaintzeko politikak, egoitzak, eguneko zentroak, harrera-familiak..., hiru foru-aldundietako aurrekontuetan sartuak. Horrela, gizarte-zerbitzuen gastuaren zenbateko handi bat osatzen da. Egozte-zatidura kalkulatzeko, Eusko Jaurlaritzaren 2010eko Gizarte Premiei buruzko Inkesta erabili da, eta dokumentu horretatik eskuratu ditugu eguneko zentroen, zentro okupazionalen, pisuen eta egoitzen onuradunen kopurua, nazionalitatearen arabera.

$$CIPD = Bext / Btot$$

Non:

*CIPD*: Adinekoen eta mendekotasunaren egozte-zatidura

*Bext*: Atzerriko nazionalitatea duten onuradunak

*Btot*: Onuradunak guztira

## Hezkuntza

Atzerriko nazionalitatea duten herritarrek hezkuntza-sistema erabiltzeagatik sortzen duten gastua balioesteko, oinarritzat hartu da ikastetxearen titulartasunaren arabera bereizitako hezkuntza maila bakoitzean matrikulatuta dagoen ikasle bakoitzaren arabeko gastua. Kalkulu hori egiteko, informazio-oinarriak dokumentu hauetatik eskuratu dira: Eusko Jaurlaritzak hezkuntza maila eta ikastetxe-titulartasun bakoitzerako 2008an eta 2012an emandako aurrekontuak, batetik, eta Hezkuntza Sailaren ikasleen nazionalitatearen arabeko matrikulazioak, bestetik.

$$GE = \left( \frac{Pinf}{MtotInf} \times MextInf + \frac{PsecFP}{MtotSecFP} \times MextSexFP + \frac{PUni}{MtotUni} \times MextUni + \frac{Pepa}{Mtotepa} \times Mextepa \right)_p + \left( \frac{Pinf}{MtotInf} \times MextInf + \frac{PsecFP}{MtotSecFP} \times MextSexFP + \frac{PUni}{MtotUni} \times MextUni + \right)_c$$

Non:

*GE*: Gastua Hezkuntzan

*P*: Titulartasun publikoa

*C*: Titulartasun itundua

*Pinf*: Haur Hezkuntzako aurrekontua

*MtotInf*: Haur Hezkuntzako matrikulazioa

*MextInf*: Haur Hezkuntzako atzerritarren matrikulazioa

*PsecFP*: Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako aurrekontua

*MtotsecFP*: Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako matrikulazioa guztira

*MextsecFP*: Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako atzerritarren matrikulazioa

*PUni*: Unibertsitate-hezkuntzako aurrekontua

*MtotUni*: Unibertsitate-hezkuntzako matrikulazioa guztira

*MextUni*: Unibertsitateko atzerritarren matrikulazioa

*Pepa*: Helduen Hezkuntzako aurrekontua

*Mtotepa*: Helduen Hezkuntzako matrikulazioa guztira

*Mextepa*: Helduen Hezkuntzako atzerritarren matrikulazioa



## Osasuna

Atzerriko herritarrek osasun-arloan zenbaterainoko gastua sortu duten kalkulatzeko, adin-taldean arabera osasun-gastuaren zatidura ezarri da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak argitaratu zuen EAEko osasun-gastuaren balioespena erabili da, adin-taldean arabera.

$$GSext = \sum \left( Ps \times \left( \frac{CostPs_i \times PobTot_i}{\sum CostPs_i \times PobTot_i} \right) \right) \times \left( \frac{Pext_i}{PobTot_i} \right)$$

*Non:*

*Ps: Osasuneko aurrekontua*

*GSext: Atzerriko biztanleei egotz dakiekeen osasun-gastua*

*CostPs: Osasun-kostuaren batez bestekoa, adin-taldearen arabera*

*PobTot: Biztanleria guztira*

*Pext: Atzerriko nazionalitatea duten biztanleak*

*i: Adin-tartea*

Informazio-iturri hauek erabili dira: alde batetik, herritarrek adin-taldearen eta nazionalitatearen arabera Estatistikako Institutu Nazionalaren Udal Erroldan duten banaketa; eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak osasun-arlorako duen aurrekontua. Kasu bietan, 2008. eta 2012. urteko datuak erabili dira analisirako.

Kontuan hartuta kasu honetan aldagai gakoa adin-tartearen arabera osasun-gastua dela, atzerriko nazionalitatea duten biztanleei egotz dakiekeen zatidura da atzerriko nazionalitatea duten biztanleen kopurua bider adin-tarte horretarako biztanleria osoa:

Adin-tartearen arabera osasun-gastuaren kalkulua adin-tartean arabera osasun-kostuaren batez bestekotik abiatuta eratu da. Horrela, batez besteko hori bider adin-tarte bakoitzeko biztanleen kopurua egin da biztanle guztientzat eta atzerriko nazionalitatea duten biztanleentzat.

Emaitza hau da: osasun-gastu teorikoa adin-tarte bakoitzerako, batez besteko gastuaren arabera. Adin-tartearen arabera osasun-gastu teoriko horretatik abiatuta, egozte-zatidura osatu dugu; hain zuzen, hauen arteko erlazioa da: adin-tarte bakoitzerako osasun-gastu teorikoa zati osasun-gastu teoriko osoa.

## Etxebizitza

Etxebizitzaren arloko gastuak balioztatzeko, arlo honetako aurrekontua bider atzerriko nazionalitatea duten biztanleei etxebizitza babestuagatik egotz dakiekeen zatidura hartu da kontuan. Analisia egiteko, Eusko Jaurlaritzak Alokabideren bidez sustatzen duen etxebizitza babestuak hartu dira kontuan alokairuetarako, eta VISESAren bidez sustaturiko etxebizitza babestuak jabetzetarako; bestalde, inbertsio orokorrak hartu dira kontuan Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren kasuan.

## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

$$GVext = \left( Palq \times \frac{AdjExtAlq}{AdjTotAlq} \right) + \left( Pprop \times \frac{AdjExtProp}{AdjTotProp} \right) + \left( Pinv \times \frac{AdjExtTot}{AdjTotTot} \right)$$

Non:

*GVext*: Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei egotz dakiekeen etxebizitza-gastua

*Palq*: Babes ofizialeko alokairurako aurrekontua

*AdjExtAlq*: Atzerriko nazionalitatea dutenen babes ofizialeko alokairuko esleipendunak

*AdjTotAlq*: Atzerriko nazionalitatea dutenen babes ofizialeko alokairuko esleipendunak

*Pprop*: Babes ofizialeko jabetzarako aurrekontua

*AdjExtprop*: Atzerriko nazionalitatea dutenen babes ofizialeko jabetzako esleipendunak

*AdjTotprop*: Atzerriko nazionalitatea dutenen babes ofizialeko jabetzako esleipendunak

*Pinv*: Babes ofizialeko inbertsioetarako aurrekontua

*AdjExtTot*: Atzerriko nazionalitatea dutenen babes ofizialeko esleipendunak guztira

*AdjTotTot*: Atzerriko nazionalitatea dutenen babes ofizialeko esleipendunak guztira

Azkenik, Alokabideren, Visesaren eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren 2008ko eta 2012ko aurrekontu errealak hartu dira aintzat. Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei egotz dakizkiekeen zatidurak honako honen emaitza dira: atzerriko nazionalitatea duten esleipendunak zati esleipendun guztiak etxebizitza-erregimenaren arabera. Etxebizitza Sailaren inbertsioen kasuan, zatidura kalkulatzeko, esleipen guztiak hartu dira aintzat, etxebizitza-erregimenaren araberrako bereizketarik egin gabe:

## PFEZa

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak (PFEZ) zenbateko diru-sarrerak eragin dituen kalkulatzeko, eginiko ekarpenagatik egotz daitekeen zatiduraren errenta mailaren arabera benetan bildu den diruaren zenbatekoa biderkatu egin da atzerriko herritarren kopuruarekin.

$$IRPFext = \sum \left( IRPFnrenta \times \frac{Extnrenta}{Ptotnrenta} \right)$$

Non:

*IRPFext*: Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei PFEZagatik egotz dakizkiekeen diru-sarrerak

*IRPFnrenta*: PFEZaren diru-bilketa, errenta mailaren arabera

*Extnrenta*: Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten atzerriko nazionalitatea duten biztanleak, errenta mailaren arabera

*Ptotnrenta*: Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten biztanle guztiak, errenta mailaren arabera

Kasu honetan, oinarri hartu dira Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak 2008ko eta 2012ko diru-bilketari buruz emandako datuak eta Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI). Errenta mailaren araberrako diru-bilketari buruzko datuak aztertuta, bereizi egin dezakegu herritarrek soldaten araberru egiten duten zerga-ekarpena. Alde horretatik, PGDIk herritarrei galdetzen die zenbateko soldatak dituzten eta ea Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten. Horrela, PGDIri erreparatuta, Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten eta beren edo besteren kontura lan-kontratua duten herritarren soldata-masa taldeka dezakegu, PFEZaren bilketa-tarteek oinarrian duten errenta mailaren araberru. Horrez gain, PGDIri esker, herritarren nazionalitatearen araberru bereiz dezakegu analisi hau.

Ildo horretan, atzerriko nazionalitatea duten biztanleen PFEZaren bidezko diru-sarreraren egozte-zatidura honen emaitza da: Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten atzerriko nazionalitatea duten biztanleak soldata-tarte bakoitzaren baitan zati Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten biztanle guztiak soldata-tarte bakoitzaren baitan:

## BEZa

Atzerriko herritarrek balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) dela-eta eragiten dituzten diru-sarrerak balioesteko, kolektibo horrek urte osoan zenbat kontsumitu duen eta kontsumo horri zer motatako BEZa ezarri zaion aztertu da.

$$IVA_{ext} = \sum (Gasto_{ext_i} \times IVA_i)$$

Non:

*IVA<sub>ext</sub>*: Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei BEZagatik egotz dakizkiekeen diru-sarrerak

*Gasto<sub>ext<sub>i</sub></sub>*: Atzerriarren etxeetako urteko gastua, kontsumo-kontzeptuaren arabera

*IVA<sub>i</sub>*: BEZ mota, kontsumo-kontzeptuaren arabera

Hala, zenbatekoa kalkulatzeko, etxeko kontsumoari buruz galdetzen duen PGDIa hartu da kontuan; zehazki, egiten diren kontsumo motei buruz galdetzen duena. Aldagai asko daudenez, zehatz-mehatz balioets daitezke herritarren kontsumo motak eta BEZaren bidez eragiten dituzten diru-sarrerak.

## Zerga bereziak

BEZak bezala, zerga bereziak ere herritarren kontsumoa zergapetzen dute; kasu honetan, alkoholaren, tabakoaren, argindarraren eta hidrokarburoen kontsumoa, zehazki. Atzerriko nazionalitatea duten herritarren ekarpena zenbatesteko, kontzeptuetako bakoitzagatik bildutako zenbateko osoa biderkatu egin da hiru zatidura zuzentzailerekin: pisu demografikoarekin, errenta mailarekin eta kontsumo-egiturarekin, hain zuzen ere.

$$\begin{aligned} IIE_{ext} &= (RIE_{alcohol} \times C_{demextA} \times C_{renext} \times C_{consect}) \\ &+ (RIE_{tabaco} \times C_{demextT} \times C_{renext} \times C_{consect}) \\ &+ (IE_{cerveza} \times C_{demextA} \times C_{renext} \times C_{consect}) \\ &+ (IE_{hidrocarburos} \times C_{demextH} \times C_{renext} \times C_{consect}) \end{aligned}$$

Non:

*IIE<sub>ext</sub>*: Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei zerga bereziengatik egotz dakizkiekeen diru-sarrerak

*RIE<sub>alcohol</sub>*: Alkoholaren zerga berezien diru-bilketa

*RIE<sub>tabaco</sub>*: Tabakoaren zerga berezien diru-bilketa

*RIE<sub>hidrocarburos</sub>*: Hidrokarburoen zerga berezien diru-bilketa

*C<sub>demextA</sub>*: Alkoholaren zatidura demografikoa

*C<sub>demextT</sub>*: Tabakoaren zatidura demografikoa

*C<sub>demextH</sub>*: Hidrokarburoen zatidura demografikoa

*C<sub>renext</sub>*: Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen errenta mailaren zatidura

*C<sub>consect</sub>*: Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen kontsumo-zatidura, kontzeptuaren arabera

## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

Kasu honetan, zenbatespena egiteko, oinarri hartu dira Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak zerga bakoitzaren bilketa absolutuari buruz emandako datuak, batetik, eta Familia Aurrekontuen Inkesta, bestetik (inkesta horren bidez, herritarrek kontzeptu horiek direla-eta zenbat kontsumitzen duten jakin daiteke). Demografiaren, errentaren eta kontsumoaren zatidura ezarrita, aldaketak sartzen dira aldagai horien arabera kontsumo mailetan; hori dela eta, faktore zuzentzaileak dira.

Zatidura demografikoa kalkulatzeko, hainbat irizpide erabili dira, kontsumo-kontzeptuaren arabera. Horrela, argindarraren eta hidrokarburoen kontsumoari dagokionez, herritar guzti-guztiak erabiltzen dituztela kontuan harturik, hau da zatidura: atzerriko nazionalitatea duten herritar guztiak zati biztanleria osoa.

Alkoholari dagokionez, 15 urtetik gorako herritarrak eta gehienbat musulmanak bizi diren herrialdeetakoak ez direnak hartu dira kontuan; kolektibo hori 15 urtetik gorako herritar guztien artean zatitu da.

Bestalde, tabakoaren zatidura demografikoa kalkulatzeko, 15 urtetik gorako atzerriko herritarren kopurua 15 urtetik gorako herritarren kopuru osoaren artean zatitu da.

Errenta mailaren kasuan, herritarrek errentaren arabera egiten duten kontsumo mailan oinarrituta dago zatidura horretan ezarri den faktore zuzentzailea. Hala, zatidura kalkulatzeko, atzerriko nazionalitatea duen familia-unitatearen batez besteko diru-sarrerak alderatu egin dira Espainiako nazionalitatea duen familia-unitatearen batez besteko diru-sarrerekin.

Azkenik, kontsumoaren zatidura egiteko, herritarrek nazionalitatearen arabera egiten duten kontsumo motaren arabera ezarri da faktore zuzentzailea. Hori kalkulatzeko, Familia Aurrekontuen Inkesta hartu da oinarri, eta etxe bakoitzak kontzeptu bakoitzagatik duen batez besteko gastu osoa alderatu egin da atzerriko herritarren etxe bakoitzak kontzeptu bakoitzagatik duen batez besteko gastuarekin.

## Gizarte-kotizazioak

Atzerriko herritarrek gizarte-kotizazioen bidez egiten duten diru-ekarpena kalkulatzeko, atzerriko herritarrei egotz dakizkiekeen zatidura biderkatu egin da 2008ko eta 2012ko diru-bilketa errealarekin.

$$ISSext=(RCS \times CISSext)$$

Non:

*ISSext: Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei egotz dakizkiekeen Gizarte Segurantzako kotizazioen diru-sarrerak*

*RCS: Gizarte Segurantzako kotizazioen diru-bilketa*

*CISSext: Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen gizarte-kotizazioen egozte-zatidura*

Non:

$$CISSext = \frac{\{(\sum SB < 900ext) \times 0,15\} + \{(\sum SB > 900ext) \times 0,21\}}{\{(\sum SB < 900tot) \times 0,15\} + \{(\sum SB > 900tot) \times 0,21\}}$$

*CISSext: Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen gizarte-kotizazioen egozte-zatidura*

*SB<900tot: Hilean < 900 euroko soldata gordina duten atzerriko nazionalitatea duten biztanleak*

*SB>900ext: Hilean > 900 euroko soldata gordina duten atzerriko nazionalitateko biztanleak*

*SB<900tot: Hilean < 900 euroko soldata gordina duten biztanleak guztira*

*SB>900tot: Hilean > 900 euroko soldata gordina duten biztanleak guztira*

Kasu honetan, EUSTATen bilketa-datuak baliatu dira kalkuluak egiteko, eta PGDIren datuak egotz daitekeen zatidura kalkulatzeko. Kontuan harturik Gizarte Segurantzari egiten zaion ekarpena aldatu egiten dela kotizatzen duen pertsonaren soldata mailaren arabera, PGDIren bidez jakin dezakegu EAEko soldata-masaren zer zati dagokien atzerriko herritarrei. Bi tarte hartu dira kontuan: alde batetik, hilean 900 euro gordin baino gutxiago kobratu eta gizarte-kotizazioetan % 15eko ekarpena egiten duten pertsonak, eta, bestetik, hilean 900 euro gordin baino gehiago kobratu eta gizarte-kotizazioetan % 21eko ekarpena egiten duten pertsonak. Lan-merkatuan duten kokapena dela eta, atzerriko nazionalitatea duten biztanleek gehiegizko ordezkari dute lan-merkatuko behealdeko soldata-eskalan eta gutxiegizko ordezkari dute goiko eskalan.

Alde horretatik, egozpen-zatidura kalkulatzeko, atzerriko herritarrek soldata-masa osoaren barruan duten pisua kalkulatu da, Gizarte Segurantzari soldataren arabera egiten dioten ekarpenari erreparatuta.

## Etxebizitza

Etxebizitzagatiko diru-sarrerak balioztatzeke, arlo honetako diru-sarrerak biderkatu egin dira atzerriko herritarrei etxebizitza babestuagatik egotz dakiekeen zatidurarekin.

*Diru-sarrerak etxebizitzako = (Alokairuko diru-sarrerak x Atzerritarren alokairuko diru-sarreraren zatidura) + (Jabetzako diru-sarrerak x Atzerritarren jabetzako diru-sarreraren zatidura)*

Analisirako, Alokabideren, Visaren eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren 2008ko eta 2012ko diru-sarrera errealak hartu dira aintzat. Atzerriko nazionalitatea duten biztanleei egotz dakizkiekeen zatidurak honako honen emaitza dira: atzerriko nazionalitatea duten esleipendunak zati esleipendun guztiak etxebizitza-erregimenaren arabera. Etxebizitza Sailaren inbertsioen kasuan, zatidura kalkulatzeko, esleipen guztiak hartu dira aintzat, etxebizitza-erregimenaren arabera bereizketarik egin gabe:

*Etxebizitzako diru-sarreraren egozte-zatidura: Atzerriko nazionalitatea duten esleipendunak / Esleipendun guztiak*



## Eranskina II - Taulak

Azterriko biztanleei EAeko hezkuntza-sistemagatik egotz dakiekeen gastua. 2008

Publikoa	Matrikulazioak				
	Aurrekontua	Guztira	Atzerritarrak	Gastua/ikasle	Egozpena
Haur eta Lehen Hezkuntza	512.103.580	101.372	8.148	5051,7	41.161.464
Bigarren Hezk. eta Lanbide Heziketa	587.864.098	60.874	5.017	9657,1	48.449.489
Unibertsitatea	320.540.806	49.838	632	6431,7	4.064.806
HHE	45.641.303	29.196	7.274	1563,3	11.371.244
<b>Guztira</b>	<b>1.466.149.787</b>				<b>105.047.003</b>

Itundua	Matrikulazioak				
	Aurrekontua	Guztira	Atzerritarrak	Gastua/ikasle	Egozpena
Haur eta Lehen Hezkuntza	295.953.215	100.352	3.245	2949,2	9.569.995
Bigarren Hezk. eta Lanbide Heziketa	305.749.887	65.170	3.463	4691,6	16.246.921
Unibertsitatea	6.882.565	13.499	62	509,9	31.611
Guztira	608.585.667				25.848.528
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.074.735.454</b>				<b>130.895.531</b>

*Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak. Egileek egina.*

Azterriko biztanleei EAeko hezkuntza-sistemagatik egotz dakiekeen gastua. 2012

Publikoa	Matrikulazioak				
	Aurrekontua	Guztira	Atzerritarrak	Gastua/ikasle	Egozpena
Haur eta Lehen Hezkuntza	633.560.163	112.598	10.546	5626,7	59.339.646
Bigarren Hezk. eta Lanbide Heziketa	628.881.680	69.556	6.768	9041,4	61.192.007
Unibertsitatea	333.622.176	51.921	783	6425,6	5.031.224
HHE	38.514.954	18.871	7.936	2041	16.197.058
<b>Guztira</b>	<b>1.634.578.973</b>				<b>141.759.934</b>

Itundua	Matrikulazioak				
	Aurrekontua	Guztira	Atzerritarrak	Gastua/ikasle	Egozpena
Haur eta Lehen Hezkuntza	291.258.326	106.727	3.265	2729	8.910.195
Bigarren Hezk. eta Lanbide Heziketa	309.618.685	70.280	4.977	4405,5	21.926.184
Unibertsitatea	9.064.500	15.630	92	579,9	53.355
Guztira	609.941.511	348	111		30.889.734
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.244.520.484</b>				<b>172.649.668</b>

*Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak. Egileek egina.*

## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

Atzerriko biztanleei EAeko osasun-sistemagatik egotz dakiekeen gastua. 2008

Adin-tarteak	Atzerritarrak	Biztanleria osoa	Atzerritarren egozte-zatidura	Kostu-zatidura, adin-tartearen arabera	Kostua, adin-tartearen arabera	Atzerritarren egozpena
00-04	5.232	95.855	0,052	0,043	137.052.991	7.093.506
05-11	7.671	117.226	0,061	0,026	82.449.727	5.063.948
12-17	7.225	92.891	0,072	0,017	53.894.393	3.889.358
18-34	54.624	432.013	0,112	0,098	312.559.190	35.084.125
35-44	24.809	329.190	0,07	0,095	303.169.225	21.246.742
45-54	11.735	307.798	0,037	0,117	372.252.518	13.671.149
55-64	3.903	265.276	0,014	0,157	498.751.079	7.231.714
65-69	827	94.338	0,009	0,089	282.095.345	2.451.456
70-74	557	102.770	0,005	0,092	291.933.609	1.573.713
75-79	356	91.252	0,004	0,115	366.450.354	1.424.071
80-84	199	63.053	0,003	0,088	279.448.331	879.185
85+	199	48.113	0,004	0,062	196.103.664	807.763
<b>GUZTIRA</b>	<b>117.337</b>	<b>2.039.775</b>		<b>1</b>	<b>3.176.160.426</b>	<b>100.416.729</b>

Iturria: Osasun Saila: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak. Egileek egina.

Atzerriko biztanleei EAeko osasun-sistemagatik egotz dakiekeen gastua. 2012

Adin-tarteak	Atzerritarrak	Biztanleria osoa	Atzerritarren egozte-zatidura	Kostu-zatidura, adin-tartearen arabera	Kostua, adin-tartearen arabera	Atzerritarren egozpena
00-04	9.015	106.787	0,084	0,043	146.696.735	12.384.195,30
05-11	8.987	139.542	0,064	0,026	88.251.308	5.683.697,40
12-17	9.136	104.567	0,087	0,017	57.686.676	5.040.074,50
18-34	65.063	425.937	0,153	0,098	334.552.440	51.103.767,50
35-44	34.929	362.720	0,096	0,095	324.501.750	31.248.681,10
45-54	16.034	340.235	0,047	0,117	398.446.093	18.777.270,60
55-64	6.014	278.195	0,022	0,157	533.845.735	11.540.639,70
65-69	1.104	117.871	0,009	0,089	301.945.005	2.828.068,70
70-74	691	88.294	0,008	0,092	312.475.539	2.445.473,00
75-79	459	95.227	0,005	0,115	392.235.660	1.890.600,00
80-84	266	72.519	0,004	0,088	299.111.733	1.097.143,10
85+	196	61.199	0,003	0,062	209.902.512	672.247,80
<b>GUZTIRA</b>	<b>151.894</b>	<b>2.193.093</b>		<b>1</b>	<b>3.399.651.186</b>	<b>144.711.859</b>

Iturria: Osasun Saila: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak. Egileek egina.



Atzerriko biztanleei eta biztanleria osoari EAEko etxebizitza-sistemagatik egotz dakiekeen gastua. 2008-2012

	2008ko aurrekontua	2012ko aurrekontua	2008ko atzerriko biztanle esleipendunen zatidura	2012ko atzerriko biztanle esleipendunen zatidura	2008ko egozpena	2012ko egozpena
Alokairua	58.677.964	124.915.313	0,141	0,232	8.273.593	28.980.353
Jabetza	360.920.424	91.756.901	0,027	0,039	9.744.851	3.578.519
Etxebizitza Saila	100.816.133	73.641.271	0,043	0,09	4.335.094	6.627.714
<b>GUZTIRA</b>	<b>520.414.521</b>	<b>290.313.485</b>			<b>22.353.538</b>	<b>39.186.586</b>

*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiken Saila. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak. Egileek egina.*

Atzerriko herritarrei BEZagatik egotzitako diru-sarreraren kalkulua. 2008-2012

	Urteko gastua				Diru-sarreraren egozpena	
	2008	2012	BEZa 2008	BEZa 2012	2008	2012
Gastuak: etxeko mantentze-lanak	179.739.717	237.357.673	0,04	0,04	7.189.589	9.494.307
Gastuak: komunitatea	5.482.239	9.037.233	0,16	0,21	877.158	1.897.819
Gastuak: udal-tasak/-zergak	8.735.898	11.024.568	1	1	8.735.898	11.024.568
Gastuak: energia	24.589.581	1.783.716	0,16	0,21	3.934.333	374.580
Gastuak: komunikazioak	27.143.279	79.185.496	0,16	0,21	4.342.925	16.628.954
Gastuak: hezkuntza	13.469.016	102.134.392	0,04	0,04	538.761	4.085.376
Gastuak: mendeko pertsonen arreta	4.626.553	8.421.938	0,16	0,21	740.248	1.768.607
Gastuak: garraioa	28.930.514	32.347.336	0,16	0,21	4.628.882	6.792.940
Gastuak: zerbitzu pertsonalak	21.720.456	17.872.365	0,16	0,21	3.475.273	3.753.197
Gastuak: aisialdiko eta kulturako jarduerak	38.459.516	37.724.028	0,16	0,21	6.153.523	7.922.046
Gastuak: jantziak eta oinetakoak	21.312.028	24.098.662	0,16	0,21	3.409.924	5.060.719
Gastuak: osasuna	7.751.606	7.880.975	0,04	0,04	310.064	315.239
Gastuak: aseguruak eta antzekoak	17.998.519	14.418.705	0,16	0,21	2.879.763	3.027.928
Gastuak: bidaiak eta oporrak	22.192.401	34.245.816	0,16	0,21	3.550.784	7.191.621
Gastuak: etxeko konponketak	3.415.256	3.021.972	0,16	0,21	546.441	634.614
Gastuak: etxeko ekipamendua	9.858.779		0,16	0,21	1.577.405	0
Gastuak: ibilgailua erostea	8.489.699	19.304.763	0,16	0,21	1.358.352	4.054.000
Beste gastu batzuk	1.830.522	6.620.967				
<b>Guztira</b>	<b>445.745.580</b>	<b>646.480.602</b>			<b>54.249.323</b>	<b>84.026.516</b>

*Iturria: PGDI. Egileek egina.*

## Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn

Azterriko herritarrei zerga bereziengatik egotzitako diru-sarrerren kalkulua

2008	Bildutakoa	Biztanleen faktore zuzentzailea	Errenta mailaren faktore zuzentzailea	Kontsumo-egituraren faktore zuzentzailea	Egozpena
Alkohola	13.201.000	0,041	0,85	0,976	449.014
Tabakoa	356.923.000	0,053	0,85	1,0594	17.034.496
Garagardoa	5.582.000	0,041	0,85	0,976	189.864
Elektrizitatea	91.527.000	0,054	0,85	0,8197	3.443.633
Hidrokarburoak	926.686.000	0,054	0,85	0,8197	34.865.847
Guztira	1.393.919.000				55.982.854

2012	Bildutakoa	Biztanleen faktore zuzentzailea	Errenta mailaren faktore zuzentzailea	Kontsumo-egituraren faktore zuzentzailea	Egozpena
Alkohola	15002000	0,056	0,67	1,1571	651.303
Tabakoa	353723000	0,068	0,67	0,9464	15.251.823
Garagardoa	5180000	0,056	0,67	1,1571	224.887
Elektrizitatea	72517000	0,069	0,67	0,8399	2.815.732
Hidrokarburoak	1050749000	0,069	0,67	0,8399	40.799.088
Guztira	1.497.171.000				59.742.832

Iturria: PGDI, Familia Aurrekontuen Inkesta eta Euskadiko Zerga Koordinazioaren Organoa Egileek egina



